

PORTUKO HIZKERA

**TXOMIN SAGARZAZU
HONDARRIBIKO UDALAREN BEKA
2003**

1. ATARIKOA

Bi arrazoi nagusi aipa daitezke, besteak beste, Portuko hizkera aztertzeko.

Lehenengoak hizkuntzaz kanpoko eragileekin du zerikusia: oharmenaren aldetik oso nabarmena izan da Portuko hizkera orain arte. Gaur egun hizkuntz errealitatea aldatzen ari zaigun neurrian, hondarribiarrok ez dakigu agian txoil ondo nola ikusi beharko genukeen kontua, baina zalantzarak ez dago hizkeraren berezitasunaz aspaldi ohartuak garela. Hizkera honen atzetik, gainera, portuarren gizataldea dugu. Eta portuarren gizataldeak herriko bizian eragin handia izateaz gain, trinkotasuna eta talde-sen nabarmena duenez, aztergai interesgarria eskaintzen digu etxetik bertatik mugitu gabe.

Bigarren arrazoia, berriz, hizkuntzari dagokio, izan ere, portuarren gizataldeak gorde eta erabiltzen baititu beste hizkeretan erabiltzen ez diren hainbat hizkuntz ezaugarri, tartean zenbait berrikuntza eta arkaismoren bat. Ezaugarirok bildu eta deskribatzea, hortaz, nahitaezkoa da Hondarribiko hizkera behar bezala agertuko badugu. Eta nahitaezkoa dugu, era berean, bai Hondarribiko beste gizatalde eta auzoekin eta baita Irunekin ere alderatzea, lotura handikoak baitira Bidasoaldeko bi hiriok. Hartara, hizkerok ingurukoekin duten harremana zehazteko ere aukera hobea izango dugu.

Ikerlan honen helburu nagusia, beraz, hizkuntzari dagokio: Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditik deskribatu eta alderatzea. Zein ezaugarritan diren berdinak eta zeinetan ez agertu nahi da. Zer duen berezko Portuak, zertan heldu den bat Hondarribiko beste auzoekin eta zertan Irunekin.

Portuko hizkeraren erakuskari labur bat ekartzea da bigarren mailako helburua, horretarako itsas lexikoaren atal baten berri jaso da eta hiztun batekin izandako elkarritzeta-puxka bat eskaini da diskoan grabaturik eta paperean idatzita.

Azterketa honen oinarrian, hortaz, berri-emaileekin izandako elkarritzetak ditugu: batzuek solasaldi gidatuen tankera dute, alegia, gai ezagunen inguruaren zenbait galderari jarraituz eratu da hizketa; beste batzuek, berriz, galde sortan oinarritutako galdeketaren itxura dute. Datu horiek bai hizkeron gaineko lanekin eta baita inguruko nahiz urrutixeagoko hizkerei buruz azkeneko urteotan argitaratutako beste azterlanekin ere alderatu dira.

Lanaren egiturari dagokionez, lehenbizi ikertzaileen ekarri nagusiaren berri eskaintzen da. Hizkuntzaz kanpoko eragileen aurkezpen laburra egin da ondotik. Lanaren ardatza, berriz, hizkuntz ezaugarien azterketan eta ondorioetan dator. Eta eranskinean Hilario Lazkanotegiri egindako galdeketaren emaitzak datoz: lexikoa eta elkarritzeta-puxken testuak. Azkenik, bibliografia.

Ez nituzke lerrook bukatu nahi eskerrak eman gabe.

Mila esker jende askori: etxekoei, Santo Tomas Lizeoko lankideei, Hondarribiko Udalari, bereziki euskarako zinegotzi izan den Ion Elizalderi eta Koro Eraso teknikariari, Hilario Lazkanotegiri eta Portuko beste berri-emaileei (Andres Lekuona eta Maximo Arizmendiri, Eusebio Martinezi, Jose Luis Amunarrizi, Joxe Manuel Alkaini, Periko Agirre), Hondarribiko eta Irungo beste berri-emaile guztiei, bestelako laguntza eskainitakoei (Andres Olaskoagari, Anjel Aramendiri eta Xabi Tiferi, Martin Iturberi, Jexumari Mendizabali, Juan Antonio Letamendiari, Kaiet Arrizabalagari), zirriborroak irakurri eta oharrak egin dizkidaten Elena Olaitzolari, Mayi Izari eta Koldo Zuazori. Baita ahantzi ditudanei ere.

2. AURREKARIAK

Atal honetan gaur egunera arteko ikertzaile nagusien ekarria agertzearekin batera Portuko hizkeraz emandako argibide eta erreferentzia nagusiak eman eta euskalkien sailkapenean Irungo eta Hondarribiko hizkeren kokagunea zein den zehaztuko da.

Badira euskal dialektologiaren historian zehar hainbat ikerlan Hondarribiko eta Irungo euskararen ezaugarriez eta kokaguneaz XVIII. mendea ezkerotzik: Larramendik azentuan kokatu zuen gipuzkerarekiko ezberdintasuna, aditz morfologiako ezaugarriak Beterrikotzat ere eman baitzituen. Irizpide nagusi horren balioa geroztik lanek egiaztatu dute Bidasoaldeko azentuaz mintzatu direnean; hala ere, egungo hondarribierak Larramendik proposatu araua ez duela betetzen ere ezaguna da.

Bonapartek inguru honetako euskara muga-azpieuskalkitzat jo zuen aditz morfologiaz eta lexikoaz baliatuz, batez ere. Aditz morfologiaren arabera, ez dator bat mendebaleko euskalkiekin eta lexikoan nabarmena da lapurtera eta goinafarrerarako isuria; baina, era berean, badira mendebalari lotzeko ezaugarriak, eta goinafarreraren baitan gipuzkeraraneko joera adierazten dutenak ere. Badira, halaber, bertakotzat emandako ezaugarria (datibo eta genitibo pluralak) eta eremu geografikoak bereizteko balio ez duten beste ezaugarri batzuk. Lexikoan jaso zituen hitzen artean badira Portukotzat jo izan direnak, baina ez zuen espreski halakorik adierazi.

Azkuek Hondarribiko, Irungo eta Oiartzungo hizkeren nafar isuria azpimarratu zuen. Hondarribikoa Bidasoaldeko nafar hizkerekin bat dator azentuaren alorrean eta datibo eta genitibo pluraleko kasu marketan, baina [χ] ahoskatzen da, eta ekiadekoekin, oro har, zenbait aditz ezaugarritan. Lexikoan, beriz, joera horrekin batera baditugu Gipuzkoako hitz altxorrarekin bat heldu diren lekukotasunak.

Azkuek berak eskaini zituen Portuko hizkeraren lehenbiziko aipamen zehatzak:

1. -*zia* pluraleko bigarren pertsonaren atzizkia
2. -*ki* aditz atzizkia
3. *joan* > *fan* aditzaren aldaera

Egia esan, Bährrek aditza bildu zuenean (1926-1935) aipatua zuen hirutan Portua baina Azkueren lekukotasunek bi alderdi gogoan hartzeko balio dute: arrantzaleen hizkeraren nortasuna eta era berean bai Hondarribian bertan, baita Irunen ere, zeukan prestigio eskasa. Itsas lexikoari dagozkion hainbat hitz ere jaso zituen: arrain-motak, itsasontziaren atalak, arrantzako tresnak.... Eta *Eriñkizundi Irukoitzean* ere jaso ziren zenbait lekukotasun.

Gerra ondoko lanetan Holmerren ekarria nabarmentzekoa da: azterketa eredugarrian mailaz mailako lekukotasunak eta transkribatutako testuak eskaintzeaz gain, azentuaren nafar isuria adierazi zuen. Era berean, sailkatzeko beste aukerak ere aipatu zituen: lapurterarako joera edo Hondarribiko euskararen kostaldeko hizkeren tankera. Azken honetan, gainera, bizkaierak kostaldeko hizkerotan duen eragina, hain zuzen arrantzaleen hizkerak egindakotzat jo ohi dena, aipatu zuen.

Mitxelenak Bidasoaldeko azentuari eskainitako arreta eta lana ere azpimarratzekoak dira. Baita hainbat lanetan sailkapenari buruz, eta hizkuntza-ezaugarriei buruz barreiaturiko oharrak ere.

Aipagarri da, halaber, Nikolas Alzolak ahozkotasuna jaso, transkribatu eta argitaratzeko egin zuen eginahala. Berrehun eta berrogeita hamar testuetatik, berrogei dira Hondarribiarekin zerikusia dutenak eta horietatik hogeita bost dira Portukoak.

Fernando Artola *Borderik*, beriz, eten gabe erakutsi zuen Hondarribiko euskara jaso eta idatzietan erabiltzeko joera. Horrekin batera, aldizkarietako artikuluetan, hitzaldietan eta batez ere idazlan nagusietan Portuko hizkeraren hizkuntz ezaugarrien agerraldi ugariak eta itsas lexikoaren lekukotasun aski egokiak eskaini zituen. Etxaburu *Kamiñazpik* ere Hondarribiko euskararen hainbat hizkuntza-ezaugarriren berri eman zuen.

Itsas lexikoari dagokionez, ezinbesteko erreferentzia da Irigoyenek *Léxico de los marineros peninsulares* lanerako egindako bilduma.

Euskal Herrian egindako inuesta-lan nagusietan ere jaso da Hondarribiko euskararen berri: Aranzadi Elkartearen *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoan*, Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasean* eta Yrizarren aditz-bilduman. Azken honetan, gainera, lekuoetako bat Portukoa denez, bertako aditza hurbiletiak ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Beste lan batzuk ere badaude: Letamendiak Hondarribiko bokalismoa aztertzeaz gain, Sagarzazurekin batera XVIII. mendeko Salazarren predikuaren hizkuntz ezaugarriak aztertu zituen. Azentuaren alorrean Hualdek eta Sagarzazuk Hondarribiko eredu nagusia deskribatzeaz gain, Donibane Lohizuneko Urteren azentuerarekiko harremana azpimarratu zuten.

Luis de Uranzuren Bidasoaldeko hiztegia argitaratu eta hizkuntza-oharrez hornitu zuen Elosegik. Bertako hizkera, eta lexikoa bereziki, ageri dira bertan.

Oso interesgarria da, halaber, Jexuxmari Mendizabal *Bizargorrik* Portuan bertan egindako bilduma argitaragabean eta batez ere idazlanetan erabilitako hitz, esapide eta aldaerak. Baita *Hondarribia* aldizkarian batez ere, eta Irungo *Plazara* aldizkariaren aleren batzueta, hainbat herritarrek jaso eta idatzitakoak. Era berean, Letamendia eta Ortizek Portuan bertan jaso eta transkribatutako testuak, edo Etxebarria & Etxebarriaren liburuan (1991) transkribatutakoak.

Egungo egoerari gagozkiola, Hondarribiko hizkeraren ezaugarri nabarmenenak ezagunak ditugu, nahiz eta lanen artean baten bat oraindik biluzteko izan. Hala gertatzen da, esate baterako, *Bordariren* idazlanen lekukotasunekin edo Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren erantzunekin.

Azkenik, hizkeren sailkapenen arabera, hizkeron kokagunea ere zehaztu da: erdialdeko euskalkia, Gipuzkoako hizkera gehienak hartzen dituen euskalkia, hain zuzen. Multzo nagusi honetan, ordea, tarteko hizkera modura aztertu beharrekoak dira, gipuzkeraren eragina apalen izan duten hizkerak direlako, batetik, eta hizkuntzaz kanpoko eragileek bildu egin dituztelako, bestetik. Jakina da ez dagoela eten handirik Donostiaren ekialdeko hizkeren artean, baina Hondarribia eta Irun talde batean, Oiartzun erdian eta Lezo eta Errenteria mendebalerago daudela adierazi izan da.

Baina gure herriko euskararen barne-aldakortasuna behar bezala aztertuko badugu, ezinbestekoa zaigu herri-bizitzan nortasun eta eragin handia duen gizatalde honen hizkeran sakontzea. Interes handikoa baita, adibidez, honako hiru alderdi hauetan aritzea:

1. Oharmenaren aldetik horren hizkera berezitzat jo ohi dena ea hizkuntz ezaugarrrietan oinarrituta ere hala gertatzen ote den jakitea.
2. Ea zertan diren arrantzaleen hizkuntz ezaugarritzat eman ketu diren aldaera fonetiko, morfosintaktiko eta lexikoak
3. Ea nola ageri den lexikoan arrantzaren bidez itsasoarekin mendetan izandako harremana.

3. HIZKUNTZAZ KANPOKO ERAGILEAK

Edozein hizkera aztertzen denean egoki izaten da hizkera horren ingurua ere miatzea, gizartearen bilakaerari buruzko ezaguera lagungarri gertatzen baita hizkuntz datu asko hobeto ulertzeko. Lerroon helburua, hala ere, apalagoa da: Portuko gizataldea kokatzeko zenbait ohar nagusi eskaintza da. Horretarako lau baieztapen eta argibide osagarriak eskaini dira atal honetan.

1. Madalena auzoan elkartu da portuarren gizataldea mendez mende

Madalena auzoa aspalditik da portuarren auzoa. Behe Erdi Aroa ezkerotik aipatzen da agirietan. Madalena eliza herribildua bera baino zaharragoa zen, eta inguruan bazituen etxeak eta ontzi ttikiatarako kaia. Bertan elkarrekin bizi ziren gehienek itsasotik ateratzen zuten bizimodua. Portuarren gizataldea aspaldikoa da, hortaz, Hondarribian: itsasoan lanean ari eta elkarren ondoan bizi ziren portuarrak auzo horretan. Eta mendeen buruan gizataldeak gorabeherak izan baditu ere, azkartu eta ugaritu egin da, eta horixe izan du kokagune nagusia.

XVI. mendearen erdian herribildutik kanpo bizi zen jendea ez zen herriko biztanleriaren ehuneko hamarrera iristen. XVIII. mende bukaeran, ordea, Madalena auzoak hobekuntza nabarmena izan zuen itsasoari eremua kendu eta gero: hirurehun eta berrogeita hamarren bat bizilagun bizi ziren bertan, herriko %13a. XIX. mendearen erdian seiehun eta berrogeita hamar bizilagun zituen Portuak. XX. mendearen kopurua goititu egin da: mendearen erditik honantz ia berrehun bizitza eraiki dira marinelentzat, konparazio baterako. Datu hauek, hala ere, ttiki gelditzen dira 2001eko erroldaren datuekin alderatuz gero: Portuan bi mila eta bostehun lagunetik goiti bizi dira, herritarren % 17a.

Hala ere, arrantzale-jendea ez da portuarra bakarrik izan: kaletar eta baserritar franko ere aritu dira lantegi horretan. Eta era berean, auzoko bizilagun gehienek arrantzarekin harremana izan badute ere, gaur egun besterik da: laurehunen bat arrantzale ari dira Hondarribitik itsasoan eta horietatik erdia edo Portutik kanpo bizi dira, hiriak berak izan duen bilakaeraren ondorioz.

Baina ez dago ukatzerik Madalena auzoa izan dela portuarren auzoa. Eta ingurune berak elkartu ditu idorrean itsasoan lantegi berean aritu direnak.

2. Marinel jendea talde-sen handiko gizataldea da

Itsasoko lantegia taldean egin dute arrantzaleek, ontziak bere-berea du eskifaia. Lehen ere hala izan dela frogatzeko adibideak ezin konta ahala dira. Idorreko eginkizun gehienak ere ez dira bakarka egitekoak izan.

Ontzi barrengoturaz gainera, marinel jendea elkartzeko erakundea bizi-bizirik dago XIV. mendea ezkerotik: Kofradia. Itsastarren elkarbizitza arautu du Kofradiak itsasoan, baina baita idorrean ere. Ondorioz, trinkotasun handia eman dio gizataldeari. Eta arrantzale-jendearen interesen eta beharren bozeramaile da.

Landetik kanpo eguneroko bizitzan gaur egunera arte nabarmena izan da marinel-jendea kuadrilaka ikustea. Ospakizunetan ere taldean elkartzeko joera handia agertu dute bai gizataldearen jaietan –San Pedro eta Santiago egunetan, Gabon eguneko Guadalupeko mezan, adibidez–, baita herriko jaietan ere –Alardeko konpainietan–.

Hortaz, aski aisa onartu ohi da marinel-jendeak taldean elkartzeko joera nabari-nabaria duela.

Talde-sen handia erakutsi du halaber. Horixe ikus liteke herri-aginteriek mendeetan zehar izandako tirabiretan: XIX. mende-hasieran alkateekin pisuaren inguruan sortutako auzia aipatzeko moduko kontua da. Edo adineko arrantzaleak mutiko zirela Kofradiako burua preso hartu zutenekoa. Edo guregandik hurbilago kirol kaia eta arrantzaleen kai berria handitzearen inguruan izandako eztabaidak.

Talde-sen handia sumatzen da portuar jendearekin mintzatzen hasi ordukotz. *Portuarra eta legeko portuarra* bezalako hitzak maiz agertzen dira elkarritzetan, eta sentimendu sakona adierazten dute. Hain zuzen, sentimendu hori jorratu nahi du 1999an sortutako *Portuarraken Asozializjua* elkartea.

Baina gaur egun *portuarra* ez dago definitzerik orain dela gutxira arte bezala. Gizartearren bilakaera gogoan hartu behar da, errealtatera hurbilduko bagara. Horregatik, portuarren gizataldea aipatzen denean, iduri du aintzat hartu beharko genituzkeela gutxienez:

- a. O gibidez arrantzan Hondarribitik aritutako hondarribiar gehienak: arrantzaleak eta arrantzale erretiratuak, pentsiodunak, Kofradiako langileak eta langile ohiak, arrainaren salerosketan aritzen direnak. Gaur egun bederatziehunen bat lagun.
- b. Arrantzale familiakoak: aita edo senarra edo semea arrantzalea duten emakumeak; aita arrantzalea izan duten emakume nahiz gizasemeak...
- c. Portu auzoko bizilagun asko.
- d. Arrantzale-gizataldearekin identifikatuta dauden gizon-emakumeak.

Zaila da, hortaz, kontzeptua definitzea eta kopurua zehaztea, baina errealtitate bizi-bizia dela ezin da ukatu.

Hiriko beste taldeen oharmenean ere berehala ezagutzen da portuarren gizataldea. Bereziki marinel-jendearen izaera nahiz hitz egiteko modua aipatu ohi dira bereizgarritzat.

3. Portuarren harreman gehienak inguruau izan dira eta baita eta beste portuekin ere

Hondarribian portuarrek harreman gehienak inguruko baserritarrekin eta kaletarrekin izan dituzte. Eguneroko bizitzako harremanetik famili lotura asko gertatu dira. Hizkera ezaugarri batzuk Portuan eta Akartegi, Zimizargan eta Kalean jasotzea, eta Jaitzubian ez, horren erakusgarri dela iduri du.

Hondarribiak Irunekin duen lotura handiaren baitan kokatu behar da portuarrek irundarrekin izandako harremana. XX. mendean zehar eskualdeburuaren eginkizunak eskuratu ditu Irunek: administrazioa, irakaskuntza, lantegiak, salerosketa... Eta arrainaren saltoki nagusia izan da bai kalez kale eta auzoz auzo ibiltzen ziren arraiketarien garaian, baita feri plazan finkatu zirenean ere. Gaur egun, hala ere, komunikabideen hobetzearekin arrainaren salerosketak bide luzeagoak egiten ditu.

Beste portuetako arrantzaleekiko harremana aspaldikoa bada ere, gehiago aztertu beharreko kontuak dira harremanaren nolakotasuna, indarra, norabidea, erabilitako hizkuntza...

XVI-XVIII. mendeetan, konparazio baterako, bakailoaren arrantzan nahiz kortsoan aritu ziren itsasontzietan maiz ageri dira Pasaia eta Donibane Lohizune-Ziburu bitarteko marinelak eta armadoreak. XIX. mendearen bukaeran Hondarribiko zenbait arrantzale-familia Donostiako kaian kokatu ziren. Arrantzale miarritzarekin ere bazuten harreman berezia arrantzale hondarribiarrek, Gavelen XX. mende hasierako lekukotasunaren arabera. 1936ko gerra zibilaren eraginez, familia hondarribiar askok mugaz bestaldera joan behar izan zuenean, makina bat portuarrek jo zuten bertako ahaideengana. Pasaian arrastan ibilitako hondarbiarrak ere ez dira gutxi izan eta portu horrekiko administrazio-lotura ere aipatzeko modukoa da. Arrantzan biberoak erabiltzea Donibane Lohizunen bizi zen hondarribiar bati bururatu omen zitzaion, adineko arrantzaleek diotenez.

4. Portuarren hizkera berezia da oharmenaren aldetik baina gainbeheraka doa

Hizkera da portuar gizataldearen bereizgarri nagusietako bat oharmenaren aldetik. Euskaraz hitz egin du portuar jendeak mendez mende eta Hondarribiko auzoen artean euskaldunen portzentaia handieneko auzoa izan da.

Gainera, solaskide portuarrekin nahiz beste hondarbiarrekin ari garelarik, portuarren hitz egiteko modua berehala agertzen den gaia izan ohi da. Gehienetan, ordea, mintzatzeko lastertasuna, hizkera

ulertzeko zaitasuna eta ahozkotasunaren beste ezaugarri batzuk aipatzen dira batez ere. Eta horien ondotik intonazioa, azentua eta lexikoa.

Eta paradoxa ttiki bat gertatzen da: oharmen aldetik herriko gizatalde eta hizkera markatuena, *hondarribiarrena* dela adierazi ohi da maiz, baina era berean, ez du prestigio handirik, badu halako gutxiespen bat hiztun askoren idurian. Gaitzesate honek, segur aski, XX. mendearren lehen erdian zehar gizataldeak heziketa eta beste gizarte-zerbitzu batzuk jasotzeko izan dituen oztopoekin izango du zerikusia, baina egia da gaur egungo hondarribiarren artean ere ez dela Portukoa Hondarribiko euskara onenaren eredutzat jotzen, baserriko euskarari balorazio hobea ematen zaio.

Eta paradoxarekin jarraituz, euskararik hondarribiarrena hiztunon oharmenaren arabera Portukoa dela uste bada ere, zenbait ikertzailek ez diote halakorik. Hain zuen ere, beste portuekiko harremanen ondorioz, itsasaldeko hizkeren nolabaiteko bateratzea gertatu dela adierazi ketu baita behin baino gehiagotan, eta alde horretatik Hondarribiko hizkeraren baitan bertakoagotzat jo izan da Kale ingurukoa Portukoa baino.

Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, berriz, Portuko hizkera azken urteotan gainbehera joaki dela iduri du. Horixe diote, behintzat, azken urteotako arrastoek.

Siadeco taldearen 1988ko azterketan, konparazio baterako, arrantzale askok euskara laneko hizkuntza gisara bakarrik erabiltzen zutela adierazten da eta gaztelania gero eta gehiago entzuten zela. Belaunaldi-aldaketa nabarmena gertatu da arrantza-munduan azkeneko urteotan –arrantzaleen batez bestekoa 34 urtekoa da– eta ontzi-barreneko bizitzan nahiz idorrean txoil nabaria da gazte askoren joera eguneroko hizketan gaztelania erabiltzeko.

Honekin batera aztertzekoa da, zalantzak gabe, euskararen normalizazioaren eraginez zabaldutako hizkuntza-ereduen eta aurreko belaunaldietako hizkeraren artean zenbaitetan dagoen tarte handi samarra.

5. Zenbait argibide osagarri

HONDARIBIKO DEMOGRAFI BILAKAERA XIX-XX

Urtea	1798/1802	1870	1900	1950	1970	2001
Biztanle-kopurua	2.306	3.000	4.442	7.363	10.471	15.480

HONDARIBIARREN EUSKARAREN EZAGUERA 2001 (EUSTAT)

Biztanleria	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak
14.632	%60,54	%18,50	%21

HONDARIBIKO EUSKALDUNEN TIPOLOGIA 1996 (EUSTAT)

Euskaldunak	Euskaldun zaharrak	Jatorriz elebidunak	Euskaldun berriak
8.345	%77,51	%8,01	%14,46

4. HIZKUNTZ AZTERKETA

Atal honetan Portuko hizkuntz ezaugarri edo arau nagusien bilduma eskaintzen da mailaz maila fonetika-fonologietan, morfosintaxian eta lexikoan.

Ezaugarriok hirian eta bailaran duten hedadura zehazten ahalegindu naiz, zenbaitetan uste baino zailxeago gertatzen bada ere. Hiru eremu nagusiren berri emango da, hortaz, hemendik aurrera:

1. Portuko hizkuntz bereizgarriak: Portuan bakarrik jaso direnak, edo maiztasun handiena auzo horretan dutenak.
2. Hondarribiko hizkuntz ezaugarriak: Portuko eta Hondarribiko beste gizataldeetako eta auzoetako hizkuntz ezaugarriak. Irunen ez dira erabiltzen. Zenbaitetan Jaitzubia Irunekin batera doa.
3. Hondarribiko eta Irungo hizkuntz ezaugarriak: bi herrietako hizkeretan topatu ditudan hizkuntz ezaugarriak.

1. Fonetika-fonologiak

1.1. Azentua

Azentuari dagokionez, Hondarribiko hizkera Bidasoaldeko hizkerekin, eta Irungoarekin bereziki, bat dator. Hala ere, ez dute berdin jokatzen azentua kokatzeko orduan bi silabatik goitiko hitzoinetan Hondarribian eta Irunen. Horretan, gainera, nabarmena da jaitzubiarren joera, Irungo hizkerarekin batera baitoaz adibide gehienetan.

Azentuaren eremua ez da hitza (*etxearekin*, esaterako), **deklinagaia** edo **hitzoina** (*etxe*) baizik; eta horren arabera, *itxé.ra*, *itxé.tik*, *itxé.bat* ahoskatzen da. Azentua, hortaz, ez da kokatzen ez artikuluan eta ez kasu-marketan ere. Bada, hala ere, salbuespenik: (*neré*, *beré...*), baina aski lexikalizatuak dira.

- a. **Silaba bakarreko** hitzak azentudunak dira:

<i>béltz.ari</i> , <i>béltz.an.a</i> , <i>béltz.ak.iñ...</i>	<i>góiz.á.a</i> , <i>góiz.ian</i> , <i>góiz.etik...</i>
<i>bóst.atan</i>	<i>mátz.a</i> ‘mahats’

- b. **Bi silabakoetan** joera bikoitza dugu:

1. Azentua bigarren silaban eramaki dutenak, nahiz kontsonantez, nahiz bokalez bukatu:

<i>anáy.a</i>	<i>luzí.a</i>
<i>egún.ian</i> , <i>egún.eko</i>	<i>sugúrr.a</i> ‘sudur’
<i>kokótz.a</i>	<i>zoló bátian</i> ‘zulo’

2. Azentua lehenbiziko silaban eramaki dutenak, markatuak. Hauen arteko gehienek bokala dute hitzaren bukaeran:

<i>átt.a</i> , <i>átt.a.k</i> , <i>átt.a.kiñ</i>	<i>gútxi</i>
<i>átze.ko</i>	<i>jéndi.ari</i>
<i>díru.a</i> , <i>díro askó</i>	<i>úmi.ak</i> ‘ume’

Sail honetan kontsonantez bukatuak aurkitzeko nahiko lan izaten da. Badira *árbol* eta *górputz*, baina *arból.a*, eta *gorpútz.a* aldaerak ere arruntak dira.

Bada azentueraren kokagunean bat ez datorren adibideren bat ere:

<i>áz.a</i>	H	<i>vs.</i>	<i>azá</i>	I
<i>gázta</i>	H	<i>vs.</i>	<i>gaztá</i>	I
<i>tóki</i>	H, I	<i>vs.</i>	<i>tokí</i>	Hiztun irundar bat jasoa

Baina bi hizkerok bat datozen hitzen esanahia bereizten duten azentuaren kokagunean:

<i>estía 'heste'</i>	<i>vs.</i>	<i>éstja 'ekialdea'</i>
<i>mandúa 'mando'</i>	<i>vs.</i>	<i>mándwa 'gailua, agintaria'</i>
<i>urá 'hura'</i>	<i>vs.</i>	<i>úra 'ur'</i>

- c. **Bi silabakoetatik goiti** bada alderik Hondarribitik Irunera azentuaren kokaguneari dagokionez.

1. **Hondarribian** hitzoinaren bukaeraren arabera finkatzen da azentuaren tokia:

- a. Bokalez bukatzen bada, azentua azken aurreko silaban joaten da:

<i>be(der)átži</i>	<i>lapurréta</i>
<i>emakúmi.a</i>	<i>nagúsi.ya, nagúsi.tikan</i>
<i>illebéti.an</i>	<i>txokoláti.a</i>

- b. Kontsonantez bukatzen bada, azentua azkeneko silaban joaten da: .

<i>alargún.a</i>	<i>'giltzurrun'</i>
<i>euskaldún.a</i>	<i>kaskalabárr.a</i>
<i>ezagún.a</i>	<i>'kazkabar'</i>
<i>gilltxurdín.a</i>	<i>osasún.a</i>

2. **Irunen**, aldiz, azentua hitzoinaren ezkerretik kontatzen hasi eta bigarren silaban joaten da:

- a. Bai bokalez bukatutakoetan:

<i>bé(dera)tži</i>	<i>lemíxiko & lemíx(i)ko</i>
<i>eskópetan billá</i>	<i>'lehenbiziko'</i>
<i>ikástola</i>	<i>pertíka.n gáñian</i>
<i>korrika</i>	

- b. Baita kontsonantez eta diptongoz bukatutakoetan ere:

<i>alárgun.a</i>	<i>Xebáxtian</i>
<i>izá(g)un.a</i>	<i>arrátoy.ak</i>
<i>Nikólas</i>	<i>ormígoy.akin</i>

Jaitzubia bat dator Irungo azentuerarekin:

<i>bé(dera)tži</i>	<i>alárgun</i>
<i>emákume</i>	<i>basérritar</i>
<i>erríbera</i>	<i>kapítan.a</i>
<i>eskópeta.kiñ</i>	<i>katálan.ak</i>
<i>ikástola.tik</i>	<i>ospítel.ian</i>
<i>illá(be)te</i>	<i>ospítal.ian</i>

Baina Hondarribiko azentueraren araberako ebakerak ere entzuten dira Jaitzubian:

<i>arkitétu.ak & arkítetu.ak</i>	<i>kantinéra & kantínera.kin</i>
<i>arražóy.ak</i>	<i>kastilláno.ż & kastillano.ż</i>
<i>errežíbo.(r)ik</i>	<i>la(r)unbát.etan</i>
<i>Galípe.n & Gá:lufe.n</i>	<i>ofisín.e(r)a & ofízin.e(r)a</i>
<i>'Guadalupe'</i>	

3. Salbuespenak:

Baditugu Hondarribiko eta Irungo hizkerotan arau nagusiarekin bat ez datozen zenbait hitz, tartean zenbait mailegu, azentua lehenbiziko silaban baitute:

<i>dénbora</i>	<i>mákiña bat</i>
<i>gánbara</i>	<i>sóziju.a</i>
<i>léngusu.a</i>	

Beste batzuetan, ordea, ez dute berdin jokatzen bi hizkerek:

Hondarribia		Irun	
múskillu.a	vs.	<i>muskúllu.a</i>	‘muskuiu’
txúrmiju.a	vs.	<i>txurníyu.a</i>	‘orkatila’

1.2. Aferesia

Hondarribiko eta Irungo hizkeretan joera nabarmena da aferesia, baina gogoan hartu beharrekoak dira, gutxienez, hizketa arinean gertatzen dela eta maiztasun handiagoa dutela aferesirik gabeko aldaerek aferesidunek baino. Erabiltzaileei dagokienez, marinel jendearen artean beste talde eta auzoetan baino usuago entzuten delakoan nago.

Bilakaerari erreparatzeko aditz jokatugabeetara jotzea da erosoa, sail horrek agerraldi franko eskaintzen baititu. Esate baterako, hiztun portuar baten jarioan honako partizipio hauen adibideak jaso ditut¹: (*a*)*tzamán*, (*e*)*kárrí*, (*e*)*kúxi*, (*e*)*mán*, (*e*)*sán*, (*e*)*sagítu*, (*i*)*bílli*, (*i*)*sándu*.

Beste hitz sail batzuetan ere gertatzen da aferesia:

- izen eta izenondoetan: (*e*)*makúmja*, (*i*)*tzísija*, (*a*)*kordjóna* & (*a*)*kordeónakin* (Irungo Meakan).
- *ketu* aditz atzizkian (<*uketu*<*ukan*, Letamendia 1990: 42).
- (*e*)*men* ‘omen’ modalizatzalea.
- toponimoak: *Taláya* ‘Atalaia’ (1725), *Txaníkenja* ‘Etxenikenea’ (1704). Eta *Laméda* ‘Alameda’ (1774, ez bada gaztelaniazko *Lama* izenaren eratorri batetik heldu, behintzat). Sail honetakoa da Olaberria auzo irundarreko *Labeko etxea* < Olabeko etxea.

1.3. Sinkopa

Bokal edo silaba azentugabea gal daiteke Hondarribiko eta Irungo hizkeretan. Hala ere, bilakaera hau ez da Bidasoaldeko beste hizkera batzuetan bezain indartsua, Bortzirietako Arantzarekin alderatuz gero, behintzat.

Adibideek erakusten dute prozesu diakronikoa dela –zenbaitetan lexemaren barrenean gertatzen da–, baina baita sinkronikoa ere –deklinabidean eta aditzean ere bai–. Badu azentuarekin harremana: agerraldi gehienetan, azentuduna da sinkoparen aurreko silaba.

Edozein bokal gal liteke –gehienetan /a, e, i/–; kontsonantea ere edozein izan daiteke. Galeraren ondorioz sor litekeen kontsonante-taldea ohiko silabaren egiturarekin bat dator:

- (*le*)*mixí* & (*le*)*mixíko* ‘lehenbizi’.
- *Ondár(ri)biya* & *Ondár(ri)biko* ‘Hondarribia’.
- ó(*be*)*tjyo* & ó(*be*)*kiyago* ‘hobeto’.
- *dénbo(ra)* *gustíyan* ‘denbora’.
- Leku-kasuetan: *atún(e)tan*, *txardín(a)tan* & *txardín(a)tatikan*, *le(g)ástan* ‘legatzetan’ (azken honetan afrikazioa galtzeak atzizkia --tan dela aditzerera eman lezake).
- Motibatiboa: *arráya(ga)tik*; *ítte(aga)tik*, *orré(ga)tik*. Eta *ser(ga)tik(an)* galdetzailea.
- Aditz jokatugabeak:
 - *até(ra)tze-*, *bó(ta)tze-*

¹ Datu hauek, beste asko bezala, Irungo herriaren Loidi bekarako egindako lanetik jaso ditut. *Let & Or*, berriz, Letamendia & Ortiz 1979 eskuizkribua adierazteko erabiltzen dut.

- *abís(a)tu, akór(da)tu, entré(ga)tu, espé(ra)tzen, opé(ra)tu, pásten* ‘pasatzen’ ohiko aldaerak dira Jaitzubian eta Irunen; ez, ordea, Hondarribiko beste auzoetan.
- Aspektu etorkizuneko *bjál(i)ko, ekár(ri)ko, etór(ri)ko, ibil(lí)ko...*
- Adizki jokatuetan Portuan entzun ohi dira *ibilli (sa)sté* ‘zarete, sé arí (sa)ste bezalakoak, beti ere hizketa lasterrean.

1.4. *-i-* bukatutako partizipio bisilabadunen aditz izen hirusilabadunak

Azentua bigarren silaban daramaten partizipio bisilabadunetan *-i* morfemaren aurretik txistukari bat baldin bada, aditz izen hirusilabaduna eratzen da Hondarribiko eta Irungo hizkeretan:

<i>asítzen</i> ‘hasten & hazten’	<i>jatxítzen & jetxítzen</i> ‘jaisten’ & ‘jezten’
<i>itxítzen</i> ‘ixten’	<i>utzítzen</i> ‘uzten’
<i>jantzítzen</i> ‘jazten’	<i>azítzen</i> ‘arazten’

Ez dira, hala ere, aldaera bakarrak: *astén* ‘hasten’, *ásten* ‘arazten’, *jeísten* ‘jezten’ eta *uztén* ‘uzten’ ere entzuten dira. Adibide guztiek hedadura bera ez badute ere, azken horien lekukotasunak aisago jasotzen dira Jaitzubian eta Irunen Hondarribiko beste auzoetan baino, eta Portuan zaila gertatzen da horrelakorik entzutea.

Hala eta guztiz ere, bada bestelakorik: *jostén* gehiago erabiltzen da *josítzen* baino. Eta gainera, partizipioaren *-tu* atzizkia hartzan duten aditzetan ere badira antzeko agerraldiak:

<i>mostútzen</i> ‘mozten’	<i>postútzen</i> ‘pozten’
<i>ostútzen</i> ‘hozten’	<i>ustútzen</i> ‘husten’

1.5. *e- > i-* eta bi bokalok nahastea

Bokala altxatzea oso zabaldua da Hondarribian eta Irunen. Bilakaera ez da eragile bakarraren ondorio eta ez du emankortasun bera beti, baina hizkerok elkartzeko balio du.

Aldaera bakarreko adibide hauetan batera doaz bi hizkerak:

<i>irúki</i> ‘eduki’	<i>ixéri</i> ‘eseri’
<i>itxé</i> ‘etxe’	

Aldaera gehiagoko hitzotan ere atzeman daiteke bilakaera bi herriotan:

<i>ibáki</i> ‘ebaki’	<i>irúzki & irúski</i> ‘eguzki’
<i>ibátzi</i> ‘ebatsi’	<i>izín & isiñ</i> ‘ezin’
<i>intjérro</i> ‘entierro’	

Beste hitzotan, aldiz, bi hizkerak bereizteko aukera ematen du bilakaerak:

izágutu ‘ezagutu’: Irunen eta Jaitzubian.

bisála ‘bezala’: Amuteko eta Akartegiko hiztun hondarribiar batzuen aldaera bakarra, nahiz eta herrian nagusi ez izan.

ixkér ‘ezker’, *ixtótu* ‘estetu’, *ixtú* ‘estu’, *ixúr* ‘hezur’ (eta *biskár ixúr* baina *malexiúr* ‘taba’), *kalitárra* ‘kaletarra’ Portuan batez ere entzun daitezke.

Zenbait hitzetan, gainera, bada bi bokalak nahasteko joera, batez ere hitz hasieran:

<i>esan</i> ‘izan’	<i>epurdí</i> ‘ipurdi’
<i>ekuxi</i> ‘ikusi’	

Maiztasunari begiratuz gero, Hondarribian gehiago gertatzen da bilakaera Irunen baino. Eta, Portuan, bereziki. Ez dira aldaera bakarrak, hala ere, *isan*, *ikuxi* eta *ipurdi* aldaerak ere entzuten baitira.

Halaxe diote, konparazio baterako, nik jasotako datuek:

- *izan*: bi herriean erabiltzen dituzte hiztun guztiekin *i-dun* aldaerak. Hala ere, *e-dunen* erabilera bereizten du: Hondarribian maiztasun handia du, eta Portuan *i-dun* aldaera baino gehiago jaso da, hori bai, aferesidunaren ondotik. Irunen, Meakako hiztun bat kenduta, ez da ia agertu ere egin *e-dun* aldaera. Jaitzubia Irunekin batera doa.
- *ikusi*: erabilera orekatua agerraldi-kopuru bertsua baitute aldaerek, eta gainera hiztun gehienetan agertu dira. Oraingoan ere *e-dunetan* nabarmenagoa da Hondarribiko agerraldien kopurua Irungoa baino, eta Portuan du maiztasun handiena.

1.6. *i* ondotik *a > e*

Bilakaera bizirik dago bi herriean, baina ez da beste hizkera batzuetan bezain emankorra: aldaera bakarrak eragin ditu zenbait adizkitan eta zenbatzaile batean, eta nagusiak ez diren aldaerak beste hitz batzuetan:

Aldaera bakarrak:

býek ‘biak’

djet ‘diat’

dje & *diré* ‘dira’

Beste aldaerak:

arrímetu ‘arrimatu’

sjén & *zittén* ‘zidan’

eskóntzjen ‘ezkontzean’

zietén ‘zidaten’

Samártzjel ‘San Martzial’

1.7. *a > o*

Asimilazioz gertatzen da, Hondarribian eta Irunen baditu adibideak, emankortasun gutxikoa bada ere. Maiztasun handiena honako adibide hauek dute:

óloko ‘horrelako’

nola galdetzailetik eratorriak: *nolonái*, *nóloko*, *nolopátt*

Beste atzizki batzuetan ere nabari da, nahiz eta ez dituen aldaera nagusiak eragiten:

-ogo ‘-ago’ konparazioko graduatzalea: *géyogo* ‘gehiago’, *áltoxogo* ‘altoxeago’

-ko atzizkia hartzen duten deklinabide-kasuetan: *sértoko* ‘zertarako’, *ikastóllokotz* ‘ikastolako’

-eloko ‘-elako’ menderagailua Hondarribian: *ibilli nitzéloko* ‘nintzelako’, *esáten dutéloko* ‘dutelako’

1.8. *-aw > ab* bokalaren aurretik

Hitzoinaren bukaerako diptongo honen ondotik bokala heldu baldin bada, irristaria kontsonante bihurtzen da Hondarribian eta Irunen:

ábatik ‘ahotik’

gabérdiya ‘gauerdia’

billába ‘bilaua’

kristába ‘kristaua’

góbazko ‘gauezko’

lábanái ‘lau anaia’

Gaur egun ez dirudi gure herriean XVIII. mendeko Salazarren *abrera* ‘aurrera’ aldaera bezalakorik ebakitzen denik. Hala ere, [eu] diptongoaren beste aldaera bat jasoa du Portuan Mendizabalek: *Aba nebri* ‘ahoa neurri’ esapidea.

1.9. aw diptongoa murriztea

Ohikoa da bi hizkerotan diptongo hau silaba trabatuan soiltzea:

alkí ‘aulki’

aspúa ‘auspo’

arpégija ‘urpegi’

sángaka ‘zaunka’

1.10. Goranzko diptongoak

Hondarribian eta Irunen maiz samar entzuten dira goranzko diptongoak, artikula eransten denean bereziki. Ondorioz, diptongo ugarienak [ja] eta [wa] dira, hain zuzen lexemaren bukaera -e, -o edo -u denean, edo kontsonantez bukatutako lexemak inesiboaren marka hartzen duenean, edo leku-genitiboari artikula eransten zaionean:

algodóiskwa

áitzja

ángwa & *ángwak*

bárkwa & *bárkwak* & *bárkwan*

arrantzálja & *arrantzáljak*

bátjan

Silaba azentugabeen gertatzen dira honako goranzko diptongo hauek; eskuarki, gainera, silaba azentudunaren ondoko silaban.

Baina lexemaren baitan ere badira goranzko diptongoak, eta beste hainbat hizkeratan bezalaxe, maileguetan agertu ohi dira, edo maiztasun handi samarra duten hitz jakinetan bigarrenkari gertatzen dira. Hauetan azentuduna izan daiteke diptongoa:

bjar ‘behar’ (eta *bar*, *bear*)

entjérrora & *intjérrwan*

bwélta & *bwéltan*

kwadrilla

e(g)wáldi ‘eguraldi’

wañ ‘orain’

Adizki jokuetan ere maiztasun handi samarra dute goranzko diptongoek:

djé ‘dira’ & *sjén* ‘ziren’

djot & *djoté*

1.11. e + a, e, o > i

Emankorra da bilakaera bi herriean. Zenbaitetan goranzko diptongo modura ahoskatzen da:

sémja ‘semea’

1.12. o + a, e, o > u

Aurreko bilakaerak bezala jokatzen du.

1.13. i + a, e, o > [j] epentesia

Epentesia ohikoa da bi hizkerotan. Aldea izatekotan, *diyo*, *zijon* moduko adizkietan izango da, Irunen aiseago topatzen baita bilakaera Hondarribian baino: Kateko lekukotasunetan ageri da epentesia Alzolaren eta Yrizarren gaietan. Beste muturrean Portua izango genuke, txoil zaila baita halakorik entzutea bertan.

1.14. Asimilazio-bustidura indartsua

Bokal aurrean batez ere gertatzen da bilakaera bi herrieta hitzoinaren baitan eta deklinabidean:

<i>amérjiña</i> ‘amabirjina’	<i>ekúxi</i> ‘ikusi’
<i>aundíttu</i> ‘handitu’	<i>gerrítik</i> ‘gerritik’ ablatiboa
<i>baserrítan</i> ‘baserrieta’ inesiboa	<i>irikítten</i> ‘irakiten’

1.15. Txistukarien neutralizazioa

Hondarribian neutralizazioa nagusitu da:

<i>basérri sárra</i> ‘zahar’	<i>amétz isugárrijak</i> ‘amets’
------------------------------	----------------------------------

Jaitzubian eta Irunen, ordea, frikarien bereizketari atxiki zaio oro har. Hala ere, hiztun batzuek nahasi egiten dituzte eta beste batzuek ez dituzte bereizten:

<i>zarí órtan</i> ‘sare’	<i>sáma</i> ‘zama’
--------------------------	--------------------

Afrikatuetan neutralizazioa nagusi da Irunen eta Jaitzubian:

<i>autzíya</i> ‘hautsi’	
-------------------------	--

Baina badira bereizten dituzten irundarrak eta baita nahasten dituztenak ere:

<i>itsúsijo</i> ‘itsusiago’	<i>utsíko dut</i> ‘utzi’
-----------------------------	--------------------------

Eta bada bi hizkeren arteko aldea erakusten duen aldaera bat: *itzáso* Hondarribian ohikoa da, eta Portuan nagusi-nagusia da, baina Irunen ez dut halakorik entzun, *itxáso* baizik.

1.16. *d/r* nahastea

Hondarribiko eta Irungo hizkeretan, beste hainbat hizkeratan bezala, ez dago /d/ eta /r/ fonemen arteko banaketa gardenik bokal artean. Hizkera batetik bestera, gainera, bada alderik: maiztasunari dagokionez, ugarixeago da nahastea Hondarribian Irunen baino.

Adibidez, *d > r* bilakaera bizirik dago bi hizkerotan. Ez hitz eta ingurune guztietan, ordea, hitz sail jakin batean, baizik; eta hitzez hitz aztertu beharrekoa da aldaera bakarra ote den edo beste aldaerekin txandaka gertatzen ote den:

<i>-(k)ada</i> > <i>-(k)ara</i> :	<i>eráre & edáre</i> ‘adina’
<i>bolara</i> ‘bolada’	<i>ero</i> ‘edo’
<i>etxara</i> ‘redada’ gazt.	<i>irúki</i> ‘eduki’
<i>a(g)úro</i> ‘agudo’	<i>seníre</i> ‘senide’
<i>biría</i> ‘bide’	
<i>erán</i> ‘edan’	

Alderantzizko bilakaera ere, *r > d*, alegia, ezaguna da dardarkaria diptongoaren ondotik eta bokal baten aurrean doanean, baina Hondarribian adibide gehixeago topatzen dira Irunen baino:

<i>áidjan</i> ‘airean’	<i>endí H / euri I</i>
<i>amáidu</i> H / <i>amáiru</i> I ‘hamahiru’	<i>idurna</i> ‘hiruna’ H
<i>(b)éndek</i> H / <i>beurek</i> I ‘beurek’	

1.17. */xw-/ > f-*

Ohikoa da Hondarribian eta Irunen Euskal Herrian zehar ezaguna den bilakaera. Azkuek jaso zuen lehenbiziko aldiz Hondarribian ‘joan’ aditzaren *fan* aldaera. Geroztik bilakaeraren beste adibide zenbait jaso dira. Oharmen aldetik aski nabarmena da gaur egungo hiztunen artean ere.

Aditzaren agerraldiez har ditzagun Loidi bekako corpusaren datuak: bi aldaerak erabili dituzte hiztun hondarribiar eta irundar gehien-gehieneak, baina *jwan* (%68) gehiago *fan* (%32) baino. Azken honek maiztasun handixeagoa du Hondarribian (%40) Irunen baino (%25). Eta *fan* erabili duten hiztun gehienetan baitan *jwan* aldaera ugariagoa da:

Eta oitan fáten giñén, pwe(s) Sa(n) Márτxale(r)a jwáten giñén

Tarteko aldaera ere entzun daiteke. Hona Olaberria auzo irundarreko baserritar bati jasoa:

Fwán esáten dut, **fán** ta etórri ta, bíye(k) **fán** ge(r)á o bíyek etórri ge(r)á o bakárrí(k) **fá(n)** nais o (...) bai gú(k) **fán**, **fwán** (...) bésté bátek **fún** esáten duté miño **fún** está eméngwa, oyártzwarra(k) badúte kostúnbre géyo: “Bai, u(r)á **fún** duk”, **fún**, miñon gúk, gú(k) **fán** esáten d(ug)u.

Izenetan ere gertatzen da bilakaera adineko jendearen artean. Izen berezieta, konparazio baterako: *Fakín* ‘Jakin’, *Fána* ‘Juana’, *Fanjozá* ‘Juan Joxe’; toponimian ere bai: *Farramon itturriya & Farramon arpia* ‘Juanramon’, *Fanamontoya* ‘Juana’; *Jamotenea & Famotenea* baserri-izenaren txandakatzearren arrazoia bilakaera hau bera izan liteke. Eta izen arruntetan: *abillana fwés* ‘abilena juez’.

1.18. /f/ fonemaren erabilera

Bi hizkerotan eutsi zaio fonemari bai maileguetan baita euskal altxorreko hitzetan ere:

<i>fé(r)i pláza</i>	<i>ifíñi & ifeñi</i> ‘erein’
<i>ferrátu</i>	<i>nafárra</i>

1.19. [x] belarea

Ohikoa da belarea ebakitzea bi hizkerotan:

<i>ejú</i> ‘oihu’	<i>jaskí & saskí</i> ‘saski’
-------------------	----------------------------------

1.20. *z-* > *tx-*

Hitz hasieran afrikatzea gertatzen da, baina beste hizkera batuetan indartsuagoa dela iduri du:

<i>txetu</i> ‘xehatu’	<i>txutik</i> ‘zutik’
<i>txilko</i> ‘zilbor’	<i>soló</i> ‘zulo’
<i>txoro</i> ‘zoro’	<i>xintxíllik</i> ‘zintzilik’
<i>txuri</i> ‘zuri’	<i>xintxo</i> ‘zintzo’

2. Morfosintaxia

2.1. *-ntzak* destinatiboaren aldaera

Destinatiboaren atzizkiaren aldaera ohikoa Hondarribian *-ntzat* den arren, portuarren artean maiz erabiltzen da *-ntzak* aldaera berriagoa:

bárku bérantzak 'berarentzat'

sémjantzak 'semearentzat'

pwen erdýa partítzén da gisónakentzak 'gizonentzat'

Are prolatibo modura ere erabil daiteke:

txorúantzak artzén tzutén dénak urá 'txorotzat'

2.2. *-kotz*, *-lakotz*, *-tekotz* aldaerak

Hondarribian eta Irunen *-kotz* & *-kos* aldaerak erabiltzen dira, eta baita ugariagoa den *-ko* aldaera ere:

gérokotz 'gero(ra)ko'

sartú órdukotz 'sartu orduko'

gurétzakotz 'gure iduriko, gure iritziz'

dírwa bjár órtakotz 'horretarako'

Ta nik aber sértik esáte(n) nun 'Ái atta'. Wej, n(er)é ondúian nwéla^kos 'nuelako'

Portuan, berriz, beste auzoetan baino maizago entzuten dela iduri du eta ingurune gehiagotan.

2.3. *-ñogo* muga adlatiboa

Atzizki horren aldaera nagusia *-ñō* bada ere, Hondarribian nabarmen samarra da *-ñogo* aldaera:

tranbían Lamédañogo 'Alamedaraino'

jéndja, (mi)ñō aldē bátetik béstjaño(g)o 'besteraino'

Itzásotik eldúki, e, t(a) allátu yajz bárr(a) órtañogo 'horretaraino'

Orráñogon 'horraino'

2.4. Datibo, genitibo eta destinatibo pluralen atzizkiak

XIX. mendearen azkeneko hamarkadez geroztik nabaria izan da Hondarribiko eta Irungo genitiboaren *-aken* eta datiboaren *-aki* aldaera berriei euskalariek eskainitako arreta. Gaur egun ere bizi-bizirik daude: datiboa *-aki* eta *-akeri* aldaerak jaso ditut –lehenbizikoa ugariago, gainera–; genitiboa eta destinatiboa ia lautik hirutan bildu ditut aldaera berriak. Agerraldiak izen sintagmetan, erakusleetan eta izenordain nahiz zenbatzailerent batean jaso dira:

áiki 'haiei'

béyaki 'behiei'

arrí bátzuken *gánjan* 'batzuen'

éudekentzat 'berentzat'

asjéndakeri 'aziendei'

txoriú óyekeri 'horiei'

Oharmenaren aldetik ere hainbat hiztunen arreta bereganatu dute aldaerok, kontuan hartzen badugu, behintzat, *Portuarraken Asozializuna* dela 1999an Portuan sortutako elkartea berriaren izena.

2.5. Datibo epentesidunak

Hondarribian eta Irunen ohikoa da erakusle singularretan eta kontsonantez bukatutako hitzoinetan datiboaren aldaerak epentesia izatea:

onéri ‘honi’

báteri ‘bati’

aréri ‘hari’

Ramóneri ‘Ramoni’

2.6. *-an* genitibo eta destinatibo singularreko aldaera

Jabego genitiboan eta destinatiboan bai singularrean, bai mugagabeen eta baita bokalez bukatutako izen berezieta ere *-ren* > *-n* bilakaera gertatu da bi hizkerotan, beste hainbatetan bezalaxe:

artzáyantzat ‘artzainarentzat’

Jáuregin itxian ‘Jauregiren’

besténa genun ‘besterena’

saldíyan isátza ‘zaldiaren’

2.7. *-ikanen* pleonastikoa

Ablatiboan, motibatiboan, partitiboan, partizipioan, perpaus osagarrieta eta modudenborazkoetan erabiltzen den *-ik* atzizkiak baditu beste bi aldaera: *-ikan* eta *-ikanen*. Hondarribian eta Irunen maiztasun handiena atzizki soilak du, *-ikan* ere ugari erabiltzen da, eta, azkenik, *-ikanen* pleonastikoa adineko hiztunen artean entzun dut:

Béntatikanen ‘Bentatik’

sertikanen ‘zergatik’

gordéta za(g)ólikamen ‘zegoelarik’

wándikenen ‘oraindik’

Larramendik XVIII. mendean aipatutako azken aldaera honetaz ditudan datuen arabera, ez dirudi herrien edo auzoen araberako banaketa egin daitekeenik: Hondarribian Portuan eta Jaitzubian entzuna dut, eta Irunen, Behobian.

2.8. Adlatiboan *-ara* & *-era*

Atzizkiaren bigarren aldaera lehenbzikoa baino gutxixeago erabiltzen bada ere, oso ugaria da Hondarribian eta Irunen:

askótera ‘askotara’

mézete(r)a ‘mezatarra’

bódatera ‘bodetara’

órte(r)a ‘horretara’

Nire datuen arabera, maiztasun handixeagoa du *-tera* aldaerak Irunen Hondarribian baino, eta Portuan ez dut halakorik jaso. Dena den, datu gehiagorekin alderatu beharreko kontua dirudi.

Aditzondoetan, berriz, lehia dugu ‘hona’ eta ‘horra’ adierazteko: *onara* & *onera* eta *orrara* & *orrera*. Nik hamar berriemaileri jasotakoetan *-a*-dunak ugariagoak dira, eta bi herrieta erabiltzen dira. Hala ere, emaitzak ez dira homogeneoak: hiru hondarribiarrek *-a*-dunak bakarrik erabili dituzte, jaitzubiarrak, aldiz, *-e*-dunak. Irunen, Katekoak bakarrik egin du jaitzubiarraren moduan, eta beste bik bi motatakoak erabili dituzte, eta Meakakoak *-a*-dunak bakarrik.

2.9. *-a* berezkoa galtzen da

Hitzoinaren bukaera *-a* denean, bokal hau galtzeko joera bizia dute bi hizkerek, batez ere Hondarribikoak:

bolárik ‘boladarik’

botíl bat ‘botila’

més(a) orí ‘meza’

txalúp(a) urá ‘txalupa’

Honek ez du esan nahi, hala eta guztiz ere, bilakaera nagusi denik ingurune eta hitz guztieta. Bestetik, oso ohikoak dira ultrazuzenketa-adibideak:

autobusa bátjan

kutxáre bátekin ‘koilara’

úra garbiyakin

2.10. Hitzoinen bukaerako *u/o* eta *i/e* nahasketak

Hitzoinaren bukaera –*u* edo –*i* baldin bada, bokalaren nolakotasuna alda daiteke:

díro gútxi ‘diru’

ordóbítan ‘ordubietan’

fotografé bat ‘fotografía’

irú tranbé ‘tranvia’

Eta beste hitz batzuetan alderantziz gertatzen da:

isúrdi gastía ‘izurde’

maindíriyak ‘maindireak’

2.11. *ur* izena singularrean leku-kasuetan

Izen hau mugagabeen erabiltzea oso zabaldua da; Hondarribian eta Irunen, ordea, ingurune beretan singularrean erabiltzea ohikoa da:

arráyan mobimjéntwak ítten dik kolóri orí úrjan jartúaži ‘uretan’

pasátzen txeña béstə ayéka(ra) bále, (bi)ñō bé(s)te bátzu(k) berrís, ra ta úrea ‘uretarra’

ándik béstə iyá kilómetro erdí bátera fán ta án, úrjan, úretik grába kargátu ‘uretan’ & ‘uretatik’

2.12. *eudek* pertsona izenordain indartua

Pluraleko 3. pertsonari dagokion pertsona izenordainak bi aldaera nagusi ditu Hondarribian: *beudek* & *eudek*. Azken hau maizago erabiltzen dela dirudi, eta horixe bera da zenbait hiztunek erantzuten dutena espreski galdetuz gero. Hiztun horiek berek onartu egiten dute beste aldaera ere erabiltzen dutela, hala ere. Irunen, berriz, *beurek* eta *beudek* jaso ditut, lehenbizikoa maizago.

2.13. *neuni* izenordaina

Pertsona izenordain indartuetan *neuni* sailekoak erabiltzen dira bi hizkerotan:

está ba óndo neuník esátja, miñó ní jván wán bárko (b)átjan ta,

Gú, gú le(g)ástan ibiltzen giñénjan geuní ála ibiltzen giñén

Aldea azentuaren kokaguneari dagokio: Hondarribian *neuni* / Jaitzubian eta Irunen *néuni*.

2.14. *zein*

Pertsonen galdea egiteko *zein* erabiltzen da bi hizkerotan, eta ez *nor*:

Zéiñ oté zen zakúrrakin?

Hala ere, *norbera*, *nor bere* ohikoak dira.

2.15. *onóntz* sailekoak

Bi hizkeretan jaso ohi dira *onóntz*, *orróntz* eta *arontz* aditzondo-aldaera. Baino ez dira aldaera bakarrak –*untz* modukoak ere entzuten baitira. Errazago da azken hauek Irunen jasotzea Hondarribian baino.

2.16. Adberbioak eta predikatuak mugagabean edo partizipioan

Adberbioak eta predikatuak absolutiboan joan ohi dira ekialdeko euskalkietan; erdialdekoetan eta mendebalekoan, aldiz, mugagabean edo partizipioan, Hondarribian eta Irunen bezala.

Hala ere, bada salbuespen bat, *bakarra* aditzondo modura erabiltzen baita:

*Ta óye(k) lénō betí e(g)áluxétan **bakárra** ibiltzen t̄zjen, wañ ibiltzen dje bítara,*

*Zúk nai izátja **bakárra** (e)re ez ezlá askí, ník e(re) emáteko bear dut izán.*

*Kalitárrak eztute esaten, ez, óloko gáñzik. Gu **bakárra**. Let & Or*

*Pentsatu **bakarra** egin dut. Alzola 1994: 53*

Beste adibide batzuk jaso baditut ere, kontua polikixeago aztertu beharrekoa da: Bordarik, adibidez, *doi-doia* erabili du idatziz, baina herriko hizkeraren erabilera ote?

*Eugenio Lexo (nik **doi-doia** ezagútu nuen) asko famázen zutén.* Bordari 1981: 299

Edo Behobian jasotako beste hau bertako hizkeraren ohiko erabilera den ez naiz ziur:

*púskak artú ta etórko zjen orréna **xuxén-xuxéna** zeláya párrana*

2.17. –*keta* eta –*ketari* atzizkiak

Bi hizkerotan erabiltzen dira. Esanahia: ‘zerbaiten bila edo garraio’ adierazten du lehenbizikoak; eta ‘lantegi horretan aritzen den laguna’ bigarrenak:

egúrketara bjáli esneketári

i(r)átzeketa legázketari

ondárketa arráiketari

Bordarik ere eskaintzen ditu beste lekukotasun batzuk lan idatzietan:

makallauketa lanpernaketa

lapa-keta almejaketa

Atzizkiok badute beste aldaera bana ere:

esnekatai iratžekata

2.18. –*onem* > –*oi* & –*on*

Latinetiko atzizkiak euskarazko bi aldaera nagusi izan ditu gure hizkerotan: –*oi* eta –*on*. Lehenbizikoa da bi herriean zabalduna eta ugariena, baina bigarrena hitz jakin batuetan entzuten da, adineko jendearen artean bereziki:

(a) *kordiona* (I) / *akordeóya* (H) kamjóna ‘kamioi’

abjóna ‘hegazkin’ (Jaitzubia eta I) porróna ‘ontzi mota’

Eratorpenean ere entzun daiteke bigarren aldaera:

balónka ‘baloika’

2.19. *-yera* atzizkia

Atzizki aldaera aski zabaldua Hondarribian. Hala ere, zenbait hitzetan ez da aldaera bakarra, eta beste batzuetan ez da erabiltzen :

<i>akabayéra</i>	<i>esayéra</i>
<i>asijéra</i>	<i>galdeyéra.</i>
<i>atayéra & ateyéra</i> 'ateera'	<i>joyéra</i> 'joera & martxa'
<i>bukayéra</i>	<i>lusayéra</i> 'luzera'

Irunen ez dut horren lekukotasun handirik jaso: Olaitzola lagunak *atéyera* eta *galdéyera* aipatu dizkit. Eta zaharragoetan badira Lopetegiren *esaierak* eta *galdeera* eta Masen *ateera* (1955).

2.20. Superlatiboaren *-an* aldaera

Hondarribian superlatiboaren morfemak ohiko aldaeraz gain, bokal irekia daraman beste bat ere badu:

<i>fíñana</i> 'finena'	<i>sállana</i> 'zailena'
<i>goxúana</i> 'goxoena'	<i>sárrana</i> 'zaharrena'
<i>ónanak</i> 'onena	<i>ttikíyanak</i> 'ttikiena'

Irunen ere aldaera bizirik bada ere, Hondarribian maiztasun handiagoa duelakoan nago.

2.21. *baitan* inesiboa

Bonapartek topatu ez bazuen ere, Hondarribian erabiltzen da bizidunen deklinabideko *-ren* *baitan* inesiboko posposizioa. Bi adiera nagusi ditu gure artean:

- 'nire esku, gain': *estákit, ogéi urtéako ya, naskátwak daosté... Ta míndwa óyen báitan da wáñ?*
- 'neurekiko, neure artean': *An tumbátu ta ló, ne(r)é báitan:* "Ok palisan bat emán bjar *t̪já(te)k né(r)i*"

Elosegiren arabera, Bidasoa alde osoan, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan erabiltzen da (Uranzu, 1994: 118). *Orotariko Euskal Hiztegiaren* arabera (OEH hemendik aurrera), idatziz batez ere Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako idazleek, Mendiburu oiartzuarra tartean, erabili badute ere, Gipuzkoan ere badira aipatutako lehenbiziko adieraren adibideak.

2.22. Sinkretismoa, analogia eta sail-aldaaketak adizki iragankorretan

NOR-NORK sailean NORK pluraleko lehenbiziko pertsonan berezko adizkiekin batera asko erabiltzen dira Portuan NOR-NORI-NORK saileko adizkiak, bai orainaldian eta baita iraganean ere:

<i>kantilla, ori gík estí(g)u (e)kúxi ketu</i>	'dugu'
<i>Billéra bat e(g)ín tzi(g)ún</i>	'genuen'
<i>Gúk fundátu si(g)ún eskól urá</i>	'genuen'

Beste hondarribiarren artean ere entzun daitezke horrelakoak, baina Portuan dute maiztasun handiena.

NOR-NORI-NORK sailera ere hedatu da sinkretismoa:

e(g)in tzi(g)ún déittu... déittu si(g)ún 'genion'

NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sailetan berezko adizkiez gain, ohikoa da herriotan bestelako adizkiak erabiltzea.

Estate baterako, NOR-NORK saileko adizkiek Irunen eta Jaitzubian hobetoxe iraun badute ere, NOR bigarren pertsonari dagokionean NORI modura hartu ohi da orainaldian:

ekuixi disú ‘ikusi zaitu’

emán djet kótxjan ‘eraman haut’

Bordariren lekukotasunak (1981: 300) adierazten digu Hondarribian behintzat XX. mendean asko zabaldu direla:

Múñetaraño sartúak ttugú hondarrabitárrak: "Ikusi diot, zuri ikusi, esan nau ta olakuak"

Iraganean pertsona gehiagotara hedatu da joera.

Eta NOR-NORK adizkiak erabiltzen dira NOR-NORI-NORK sailean. Adibidez, orainaldian NORI 1. pertsona denean gertatzen da. Zabalduenak singularreko adizkiak dira; pluralekoak, berriz, Irunen eta Hondarribiko baserri-auzoetan jaso ketu dira batez ere:

disgústwa emán nak ‘didak’

alkándora berriya erósi gattú ‘digu’

Iraganean ere badira tankera honetakoak:

nawén ‘zidan’

nakén ‘hidan’

Hondarribiko portuar jendeari, gainera, beste gizataldeetako lagunei baino maizago entzuten zaizkie analogiaz sortutako adizki berriak:

órðwan be(g)ís bjár tzen e, (...), (e)sa(g)útu bjar tzusún

‘zenuen’

tána, tanátu, tanátu déitze(n) njo(g)ún

‘genion’

Gabóna bátzwek án pasátu nittugún, Dákarren... osó óndo pasátu genúin

‘genituen’

kontrabándwa pasátzen txisjan

‘zenuten’

Guk banúgun [‘genuen’]. *Jan núgun. Zuk esan zuzún*

‘zenuen’ (Artola 1981: 301)

2.23. NOR-NORI saileko berezko adizkien galera

Bi hizkerotan nabarmena da NOR-NORI-NORK eta NOR-NORK tankerako adizkiak erabiltzeko joera. Lehenengo sailekoak batez ere Hondarribian erabiltzen dira, eta bigarrenekoak Irunen (ikus Yrizar 1992):

<i>zait</i>		<i>zaizkit</i>		<i>zitzaidan</i>	
H	I	H	I	H	I
nau	nau	na(u)zki, naute	na(u)zki, naute	zian	zian
dio	dio	ttio, diote	ttio	zion	zion
digu	gattu	tti(g)u	gattu	zigun, nigun	gattuen
dizu	zattu	ttizu, dizute	zattu	zizun	zattuen
dizia	zaittuste	ttizia	zaittuste	zizian	zaittusten
diote	diote	ttiozte	ddiote	zioten	zioten

Hala ere, NOR-NORI saileko berezko adizkiak ere entzun daitezke: Jaitzubian ez dira batere arrottzak, adibidez, eta beste auzoetan hirugarren pertsonako adizkiak ere entzun daitezke.

2.24. Aditz laguntzailearen iraganeko (*t)zi*>(*t)xi*-

Portuar zenbaiti jasoa da honako ezaugarri hau, iraganeko 3. pertsonako *zi-* morfema sabaikari modura ebakitzen da. Zehazteko dago bilakaera honen hedadura:

Urrútja sér(a) óyek kamjóna(k) xuxtéñ ‘zituzten’

bí kofradí (*i*)n **txuxtén** ‘zituzten’

Joxemjél Iridój, Mintzíñā déjtze(n) **xjoté(n)** ‘zioten’

Májña (*b*)ate(*r*)i gosía kentzen **txjotén** ‘zioten’

Sartú **xjatén** La Sállen ‘zidaten’ (‘ninduten’)

Eta NOR sailera ere hedatu da, bakanago bada ere:

sárrak ibiltze(n) **xjé(n)** ‘ziren’

2.25. –*tt*- pluralgilearen aldaera **NOR-NORI-NORK** sailean

Hondarribian -*it*- pluralgilea erabiltzen da:

ekárrit nittjón ‘nizkion’

emán ttjót ‘dizkiot’

Irunen ere entzuten da, baina -*zki*- morfema gaientzen ari da. Yrizarren Bidasoako berriemaileak hala adierazi zuen (1992: 385). Aipatutako aldaera Irunen bi berriemaileri bakarrik jaso diet: Bidasoako berriemaile berari eta Kateko beste bat.

2.26. –*tt*- pluralgilearen aldaera **NOR-NORK** saileko hiketan

Ohikoa da hiketan NOR-NORK erako adizkietan:

bjáli ttjét ‘ditiat’

emán nittikén ‘nitian’

2.27. *ttire* ‘dira’ analogikoa

IZAN aditzaren orainaldiiko 3. pertsonara ere zabaldu da aditz iragankorretako *dít-* > *tti-* ebakera, eta hiztun portuarren artean txoil errrotuta dago:

wán ttjén aparátu(e)kin ‘diren’

wáñ sóndak battíre eúnda estáki(*t*) senbát, berreún métro i(g)wál artzén ttisuténak ‘dira’

Wán ttiré bosteún métro artzén dwénak [duten sondak] ‘dira’

2.28. *nisen* ‘nintzen’, *yisen* ‘hintzen’

IZAN aditzaren iraganeko adizkiak 1. eta 2. pertsonetan txistukariaren afrikaziorik gabe ebakitzen dira:

orí urté askó da, miño ni mutí(l) koskórra niséla ‘nintzela’

ín nisén píxkat nerbjóstu ‘nintzen’

sértara etórri yisén? ‘hintzen’

Eta iraganeko adizkiak dira, hain xuxen, hizkera hauetan orainaldiikoen aldaerak menderakuntzan: *nisen* ‘naizen’ *niséla* ‘naizela’...

2.29. *zukan* & *zunen* hikako adizkiak

XX. mendearren hasieraz geroztik gaur egunera arte, gutxienez, jasota dago Hondarribian tankera honetako adizkien erabilera, eta bereizketa nabarmena gertatzen da Irungo hizkerarekin alderatuz gero:

Hondarribia	Irun	Euskara batua
<i>zuken</i>	<i>yuen</i>	‘zuan’ & ‘huen’
<i>zunen</i>	<i>yunen</i>	‘zunan’ & ‘huen’
<i>zittuken</i>	<i>ttuen</i>	‘zituan’ & ‘hituen’
<i>zittunen</i>	<i>ttunen</i> & <i>ttuen</i>	‘zitunan’ & ‘hituen’

Oharmena ere bat heldu da horretan: Olaberria auzoko Antonio Martiarena irundarraren iduriz, *zuken* Hondarribikoa da, ez Irungoa. Hala ere, Irunen ere entzuten da, baina hondarribiarren eraginez: bere anaia batek erabiltzen du, hondarribiarrekin lanean aritua delako, nonbait. Neronek ere jasoa dut Bidasoa auzoan lekukotasunen bat.

Jaitzubiaren tokia zehazteko datu gutxiko izanagatik, Irunekin doa ezaugarri honetan ere:

amón(a) bat án pasátzen aj yun ta ‘zuan’

2.30. NOR-NORI-NORK saileko adizkien hiketa: *nioken* & *nionen*

Adizki alokutiboak sortzeko *-k-* eta *-n-* morfemak txertatzen dira errejistro neutroko adizkietan:
esán njokén ‘nioan’

2.31. Adizki trinkoen urritasuna

Adizki trinko gutxi erabiltzen da Hondarribian. Azkuek jaso zuenarekin bat heldu da egungo hiztunen erabilera. Maiztasunaren arabera, halako sailkapen moduko bat era liteke:

- *Izan* eta *ukan* dira ugarienak. Azken honen adizkiak erabiltzen dira *eduki-koen* ordez, Bährren arabera, gutxienez, XX. mendearren hasieraz geroztik.
- *Jakin* eta *egon* ugari samarrak dira. Azken honetan berezko adizkien ordez askotan erabiltzen dira *izan-en* adizkiak. Eta *jakin* aditzean perifrastikoak entzuten dira trinkoen ordez:

Bai, jakín tzuten ‘bazekiten’

Jangoíkwa(k) béra(k) jakín du bakárra ‘daki’

bérak erakútzti sigín kántak, léngo kánta sárrak jakín tzigúnak ‘genekizkienak’

Jakin dizien bezala alderdi honetan hamar isla ttuk... ‘dakizue’ (Lazkanotegi 1991: 6)

- *Joan* gutxieago erabiltzen da. Are gutxiago *etorri* eta *ibili*, hauetan *-ki* atzizkiaren bidezko perifrastikoek maiztasun handia dute, eta, gainera, *heldu* aditza erabiltzen da *etorri* aditzaren ordez.
- *Eduki* ez da ia erabiltzen Hondarribiko eremu gehienean. Jaitzubian eta Irunen bai, ordea. *Eraman-en* lekukotasunik ez dut jaso, Jaitzubian izan ezik. Eta *ekarri-ren* adizkirik Jaitzubian ere ez.

Eremuak gogoan hartuta, hortaz, Hondarribiko auzo gehienetan adizki trinko gutxi erabiltzen dira, eta Jaitzubian eta Irunen gehixeago.

2.32. *-a-* nagusi iraganeko trinkoetan

Hizkera hauetan adizki trinkoak gutxi erabiltzen direla adierazi da arestian. Baino urritasunaren baitan-*a-* gehiago ebakitzen da *-e-* baino. Hala ere, ez dirudi aditz guztietai maiztasun bera duenik. Nire datuak eta Alzola 1994 kontuan harturik ugarienetik urrienera halako gradazioa finka liteke:

1. egon	2. ibili	3. eduki	4. jakin
<i>yanguen</i> ‘hengoen’	<i>nabillen</i> ‘nenbillen’	<i>nakan</i> ‘neukan’	<i>zakijen</i> ‘zekien’
<i>zagon</i> ‘zegoen’	<i>zabilen</i> ‘zebilen’	<i>zaukan</i> ‘zeukan’	<i>zakitten</i> ‘zekiten’
<i>zauden</i> ‘zeunden’	<i>ganbiltzan</i> ‘genbiltzan’	<i>zauzkan</i> ‘zeuzkan’	
<i>zagotzen</i> ‘zeuden’	<i>zabiltzan</i> & <i>zabiltzaten</i> ‘zebilitzan’		

2.33. *njoa*

Hondarribian eta Irunen ohikoak dira *joan* aditzean *njoa* tankerako adizkiak:

dijwasté ‘doaz’

sijwán ‘zihoan’

2.34. *-zia* atzizkia

XVIII. mendeko Salazar erretoreaz geroztik Hondarribiko hizkeraren ezaugarri nabarmenetako bat da pluraleko bigarren pertsonaren *-zia* aditz atzizkiaren aldaera (-*zue*):

gustátu disjá ‘zaizue’

esántzia ‘esazue’

nabáduja ‘nahi baduzue’

jótzen dusjé ‘duzue’

Bi aldaera hauetatik [sjə] maizago entzuten da [sjɛ] baino.

Portukotzat jo izan bada ere, gaur egun Hondarribiko eremu gehienean entzuten da. Jaitzubian, ordea, lekukotasun bakanen bat jaso dudan arren, -*zue* aldaera da nagusi:

barkázwe ‘barka ezazue’

zwék espánažwe néj píxkat erréspetatzén ‘nauzue’

Hala ere, Portuan izan ezik beste gaineko auzo eta taldeetan *-zute* aldaera ere entzun daiteke.

Irunen, aldiz, ez da Hondarribiko aldaera nagusia entzuten; bai, ordea, beste biak. Yrizarren lekukotasunean (1992), adibidez, *-zute* ugariagoa da *-zue* baino. Hala ere, ez dago auzoen araberako banaketa zehatzik egiterik.

Hiztunen oharmenaren aldetik, *-zia* aldaera Hondarribikotzat jotzeaz gainera, halako prestigio-ezarekin lotuta zegoen Azkueren garaikotz.

Hedadura zabalagoari begira, ekialdeko ezaugarria da bilakaera hau: bada *-zje* Nafarroan – Ultzama-Atetz lerrotik ekialdera– eta Ipar Euskal Herrian –Lapurdiko ekialdetik Zuberoara–. Ezaugarri honetan, *-ketu* atzizkiarekin gertatzen den bezala, Hondarribiak badu lotura ekialderagoko hizkerekintzat aldarrikatzen.

2.35. 2. pertsona singularreko *y-* aurritzkia

Azkuez geroztik hizkeron eta Oiartzungoaren nafar isuria aldarrikatzeko ezaugarrietako bat bizi-bizirik dago gaur egun:

bisí yáis? ‘haiz?’

yabil ‘habil’

Bilakaeraren jatorria gorabehera *-/-i* + bokala/ ingurunean gertatutako epentesia dirudi–, adizki laguntzaileetan eta trinkoetan erabiltzen da bi hizkerotan, nahiz eta gorago aipatu denez (ikus *zuken* & *zunen* ezaugarria), Jaitzubian eta Irunen adizki gehiagotan ageri den.

2.36. *-te* atzizkia

Erdialdeko hainbat hizkeraren antzera-*te* morfema erabiltzen da bi hizkerotan pluraleko 3. pertsona adierazteko:

esán dute

emán diote

Eta hau bera ageri da NORI ‘haiei’ren morfeman, Gipuzkoako ipar ekialdetik eguzki aldera bezala:

esán njotén ‘nien’

gustáztzen djoté ‘zaie’

Hala ere, sinkretismoa ere bizi-bizia denez, barra-barra erabiltzen dute hiztunek singularrari dagokion morfema:

*Ník... mérito géyo emáten **djot** déndo báteko gisón sárraki*

2.37. *-z-* pluraleko morfema *izan* eta *egon* aditzetan

Hondarribiko eta Irungo hizkeretan arrunta da morfema bi aditzotan:

sasté ‘zarete’

dagosté ‘daude’

siñestén ‘zineten’

gañedesela ‘geundela’

2.38. *jartú* pleonastikoa

Hondarribian eta Irunen ohikoak diren *egondu*, *izandu* eta *xinistatu* partizipio analogikoez gain, Portuan bada *jartu* aldaera:

*níri **jartú** sján ‘ni jarri ninduen’*

*sárdatan tzukén federaziywak jenerál **jartúa** ottúr(a) orí ‘jarria’*

*arráyan mobimjéntwak (egítten dik kolóri orí úrjan **jartúazi** ‘jarrarazi’*

2.39. Aspektu etorkizuna: *-go* atzizkia

Geroaldia adierazteko *-ko* morfema erabiltzen da, baita *-n-z* bukatutako partizipioekin ere, erdialdeko eta mendebaleko hizkeretan gertatzen den bezalaxe:

emángo

esángoo

2.40. *ketu* aditz atzizkia

Ohitura adierazteko eta aspektu burutua areagotzeko partizipioari lotzen zaion *ketu* atzizkia ugari erabiltzen da Hondarribian, eta hauxe da, hain zuzen ere, gaur egungo datuen arabera, Irungo hizkeratik bereizteko ager daitekeen ezaugarri nabarmenetako bat, Irunen *izandu* erabiltzen baita:

*ní (i)billi **kétu** najs diskusíywa(n) i(r)undárrakin.*

*Boca Juniors ta ník ikúxi **ketu** ttut ór*

*Miño frúta baj, frúta askó **íñ izándu** da.*

*Órti(k) mendítik gwé átta **jwán isándu** da astúakin.*

Atzizkia Hondarribitik kanpo ere erabilia da: Bidasoaldean Sunbillara bitarte, gutxienez, jaso da eta Goizuetan ere bada horren arrastorik. Aipatzeko modukoa gertatzen da, hortaz, Irunen lekukotasunik ez jasotzea.

2.41. *-ki* aditz atzizkia

Bi hizkerotan ageri da *-ki* atzizkia. Honako aditz hauekin ager daiteke: *ari izan, bizi izan, egon, ekarri, eraman, etorri & heldu, ibili, izan, joan*. Bi modutan usatzen da:

1. Trinkoen ordezko adizki perifrastikoak osatzeko:

emáki dugú ‘daramagu’

ibílki ttuk ‘zabiltzak’

eztú ekárki ‘dakar’

jwaki diré ‘doaz’

2. Hanpatzailea:

deus(i)záki éz ta emán in bjartzén [pártia]

patxára eérrian egóki bai eta bitártjan grúa emán kótxa

Frantxíxxka áurreko aldian bisiki ta esta konturátu re

Argitu beharrekoa da, hala ere, Irunen nolako maiztasuna duen lehenbiziko erabilerak. Izan ere, Olaberria auzoko adineko hiztun baten arabera tankera horretako adizkiak Hondarribian erabiltzen baitira. Auzo bereko beste hiztun gazteago baten iduriz, berriz, gurasoak bertakoak izanik, bietako bati bakarrik entzuten zizkion horrelakoak.

2.42. *-u-* erroa *edun* aditzean

Hauxe da eguneroako hizketan erabiltzen diren adizkien erroa. Hala ere, hainbat hiztunek egoera formaletan hizketa maila jasoagoa egin nahi izaten dutenean aldatzen dituzten ezaugarri nabarmenetako bat izan ohi da, *-e-dun* erroko adizkiak erabiltzena jotzen dute.

2.43. *-e-* erroa *izan* aditzean ugariago

XX. mende hasieran hala ez bazen ere, pluraleko lehenengo eta bigarren pertsonetan *-e-* erroa gaur egun ugariagoa da *-a-* erroa baino. Adizki guztietan ez du banaketa bera, ordea, eta esku artean ditudan datuen arabera Hondarribian *-a-* gehiago erabiltzen da Irunen baino:

<i>gara</i>		<i>zara</i>		<i>zarete</i>	
Hondaribia	Irun	Hondaribia	Irun	Hondaribia	Irun
<i>gera & gea nagusi</i>	<i>gea & gera</i>	<i>sera nagusi</i>	<i>zea & zera</i>	<i>sate & saste</i>	<i>zate nagusi</i>
<i>gara Portuan</i>	<i>gara</i>	<i>sara Portuan</i>			<i>zate</i> (Alzola 1994)
<i>ga Jaitzubian</i> (bakarra Alzola 1994)		<i>sa Jaitzubian</i>			<i>zazte & zete</i>

2.44. *izan-en* singularreko 3. pertsonan *-e*

Orainaldiako *da* adizkiak menderagailuak hartzen dituenean *de-* bihurtzen da bi hizkerotan. Eta iraganean *zela* dugu.

2.45. NOR-NORK saileko adizkietan *-au-* & *-a-* erroak

Erroen txandakatzea gertatzen da NOR-NORK saileko orainaldiako adizkietan, erdialdeko euskalkian bezala:

enak entendíttua ‘nauk’ (alokutiboa)

ekárrri nauté

ekúxi nasú ‘nauzu’

eldú nauzkí ‘datozkit’

2.46. *goa & fas* aginterako adizkiak

Joan aditzaren aginteran singularreko 2. pertsonan honako aldaera epentesidun hau erabiltzen da:

óbe duk jwán e, gwá

Gwá granádak até(ra)tzera!

Hondarribian, gainera indikatiboko orainaldian ere erabiltzen da:

Nóra gwá?

Eta bi hizkeretan entzuten dira aginterako beste aldaera analogiko hauek:

jwá & fwá & fa ‘hoa’

jwáste & fwáste & fáste ‘zoazte’

jwás & fas ‘zoaz’

2.47. Aditzoina

Bi herriean erabiltzen da aditzoina, nahiz eta zenbaitetan ez diren ondo bereizten partizipioaren eta aditzoinaren esparruak:

(e)káztan ‘ekar ezan’

pentzásu ‘pentsa ezazu’

ikástak ‘ikas ezak’

sáltzu & saldúzu ‘sal ezazu’

2.48. Partizipioa + *-a* eta *emanta & eginta*

Erdialdeko beste zenbait hizkeratan baino maiztasun handiagoa du partizipioak artikuluaren laguntzarekin. Nabarmena da, behintzat, partizipioa + *-ta* egitura baino ugariagoa dela. Azken egitura honetan *-ta* atzizkia zuzenean erantsi ohi zaio bestelako soinu-egokitzapenik gabe:

eginta & ínta ‘eginda’

emánta ‘emanda’

2.49. *egin* indargarria

Asko erabiltzen dute hiztunek *egin* indargarri modura, eta ahozkotasunean gertatu ohi den moduan elkarrizketetan maiz ageri da aditz nagusia eskuinerago:

Gérra ondúan gosía gonún emén, eta emén errótak in tzittustén itxí vs. *Gérra ondúan itxí sittustén errótak, lénogo es.*

2.50. *posible izan* perifrasia

Ahalerako berezko adizkien agerraldiak urriak dira Hondarribian eta Irunen, horien ordez perifrasia erabiltzen da. *Posible izan* da perifrasia nagusia, eta *ahal izan* ere erabiltzen da, baina aditz nagusi modura bakarrik, ez beste aditz baten laguntzaile modura:

posible dík itzáwan kálma (i)zátja miño arrókatan ezátja amwítzak

etzuén posible jan

aber posible nun orá biziklétan e(r)áman Ondárbita

Ikuskizun dago ahalerazko adizkien maiztasunaren araberako bereizketarik egin litekeen, baina itxuren arabera Portuan eta Hondarribian, oro har, zailago da berezko adizkiak topatzea Irunen baino.

2.51. Galderetako *al* behar ez

Bai ez erako galderak osatzeko *al* galdegilea ez da beharrezkoa Hondarribiko eta Irungo hizkeretan, eta iduri du maiztasun aldetik halako gradazio bat finka litekeela erabilerari dagokionez: Irunen eta Jaitzubian ugari samar erabiltzen da, Hondarribiko beste auzoetan eta Kalean gutxiago, eta Portuan gutxien edo ia batere ez.

2.52. *edo* juntagailu hautakaria

Juntaduran *edo* (*ero* & *ro* & *o*) da perpaus hautakariak elkartzeko juntagailu bakarra, *ala* arrotz gertatzen da:

Bítatik séin nai dusú: bérdfa ro oríya?

2.53. *benik* emendiozko lokailua

Emendiozko lokailuen artean *berik* ‘bederik’ ezaguna da hizkerotan, eta baita horren aldaera dirudien *benik* ere. Portuan erabiltzen da:

Amá, ni(ri) déndan bénik ekánsu [‘ekar iezadazu’] *lána*

Esperántza bat emáteko bénikan, béstir irú o láu illebéte

Argitzeko dago, dena den, beste gizataldeek zenbat erabiltzen duten. Irungo Behobian aditua dut eta Holmerrek Hondarribikotzat eman zuen hiztegian eta jasoa du, gutxienez, testu batean.

2.54. Erlatibozko eta kausa perpausetan (*balin*) *ba-* aldaera

Erlatibozko eta kausazko perpausak egiteko Irunen eta Hondarribian asko usatzen da *bait-* menderagailua. Portuan, (*balin*) *ba-* aldaera entzuten da:

- *Altxáko pasátu ta segíttwan billa aundí bat, sakúr bátzu(k) balin bádje* ‘baitira’ erlatibozkoa
- *Nóla itxé ttikýurá, nóla da áurres áurres Kálle San Pétron, áurres áurres ítten bádu kamíywak* ‘baitu’ erlatibozkoa
- *Joxe Antonio Xusperregi, kalitárra, abogádwa da, (estu)su esa(g)ützen? Antójodun bat, kapitán sérakin fáten báda...* ‘baita’ erlatibozkoa
- *biñi áyek ekúx(i)ko ttusú pálo mutúrrjan bí gisón i(g)wál txútik e, áyek aparátw(a)k battúste sú(k) biñ(o) óbjak, biñon be(g)ýak ere askó ítten bádu* ‘baitu’ kausazkoa

2.55. Perpaus osagarrietako *-enik* menderagailua

Aditz nagusia ezezkoa denean, perpaus osagarria *-enik* menderagailuarekin egin ohi da:

atéra sénjan orí nexkás jantzíya, nik enékin ítzik ere fán bar tzwénik

2.56. Perpaus osagarrietako *-en* menderagailua

uste izan aditzaren edo *usteż* adizlagunaren osagarria eratzeko *-en* menderagailua erabil daiteke:

estút usté itxiák iñak dirén ór, usté dut orí bakárik dagón itxi orí

Ez da menderagailu nagusia, ordea, *-ela* gehiago erabiltzen da.

2.57. *aski izan* + perpaus osagarria

Aski izenondoaren mailakatzailea edo aditzondoa *iżan* aditzarekin erabil daiteke. Osagarri aditz izena erabili ohi da:

Zúk **naj izátja** bakárra (e)re ez **eztá askí ník** e(re) emáteko bear dut iżán
Askí dusú seunik íttia!

2.58. *-zkoan* denborazko menderagailua

Aldiberetasuna adierazteko denborazko perpausetan *-zkoan* atzizkia erantsi ohi zaie aditz izenei eta aditzondoei:

aurtén, wañ onó(n)tż etórtzeskwan, irwéjtairú pesétan pa(g)átxen xjoté(n) kílwa ‘etortzerakoan’
sókakin bóta béra ta, géro góttiskwan bátek bildú ála béstjak braseátu sénba(t) brásá sjén ta ‘goitikoan’

2.59. *alik eta... bitarte* denborazko menderagailua

Hondarribian *noiż arte* galderari erantzuten dioten denborazko perpausak eratzeko asko usatzen da:

ta martinak to, tipátu bérstan kwadríllaka t(a) an e(g)όngo direlá, alik eta berriż ere illúndu bitárte, álik eta altxátu bitárte arráya berriż ere

Muga adlatiboaren atzizkia ere jaso dezake:

Eta an eondu nitzen alik eta neskámea atzamán bitarteño Let & Or

Hala ere, azken atzizki hau ez dut bera bakarrik entzun denborazko perpausetan, Alzolak Irunen jaso zuen bezala, adibidez (1994: 13):

Jangoikuak emantziyon penitentziya mundua deiño alaxen segitzecho

2.60. *-elik(an)* denbora eta modu perpausetan

Bi herrieta erabiltzen da *-elarik* menderagailuaren aldaera. Hala ere, *-ela* aldaerarekin alderatuz gero, azken hau ugariagoa da. Ez dirudi, gainera, *-elik* aldaerak Portuan maiztasun handirik duenik:

gastía sélik kárro bat pásá sjón beláunan gáintik

3. Lexikoa

3.1. Aldaera lexikoak

3.1.1. Portuko hizkeraren aldaera lexikoak

1. *antzi* ‘ahantzi’: Aldaera hau *astu*-rekin batera erabiltzen da. Azkuek eta Holmerrek jaso eta Bordarik erabilia da. Gure hizkerotan batez ere Portuan entzuten da, baina Irunen Maser hiztegian ageri da eta neronek ere jaso izan dut:

<i>Niri antzi (i)ttén tzianen. Niri antzi itten tzian</i>	Let & Or
<i>Antzi nañ berriñ e(re)</i>	Irun, Meaka

2. *babe* ‘gabe’
3. *bajera* ‘baxera’: Mitxelenak *Fonética Histórica Vasca* Erreenteriako *bajera* aldaera *bachère* gaskoitik mailegatutzat emana. Portuan jaso dut.
4. *bajore* ‘bapore, itsasontzi-mota’: *bapore* & *bafore* aldaerak ere erabili arren, hauxe da nagusi Portuan.
5. *baxpa(d)are* ‘badaezpada ere’ eta *portzikaso* (cf. gazt. ‘por si acaso’), azken hau Irunen ere jasoa.
6. *betiro* denbora aditzondoia: Hondarribian eta Irunen *beti* aldaera erabiltzen da auzo guztietan. Portuan horrekin batera *betiro* aldaera erabiltzen da. Zaila da bi aldaerotatik zeinek duen maiztasun handiagoa zehazten. Hiztun portuar bati egindako grabazioan parean erabili zituen (*beti* –15 agerraldi- / *betiro* –13 agerraldi-):

<i>b(ad)akisu betiro Biskáyan, askótan, géyenatan Bermión ta ójtan</i>
<i>betiro</i> éstula (i)záten arráyak arrába

7. *bisin* ‘bezain’
8. *gañikera* ‘gainera’: ***Gañikera*** (*onela esaten dute portuarrak nere errian*) Bordari 1981 eta 1982.
9. *gurena* ‘gurea’: Bordariren lekukotasunaz gain (1981: 301: *Hau, zuréna da, hau guréna*), etxe-izena gaur egun. Ez dakit horren zabaldua ote den marinel-jendearen artean.
10. *gusti* ‘guzti’: bi hizkeretan erabiltzen dira *guži* eta *gužti* aldaerak. Hala ere, azken hau oso gutxi Irunen; Hondarribian, aldiz, nagusi da, eta maiztasun handiena Portuan du. *Let & Or* corpusean, ordea, ez da hala.
11. *irubasi* ‘irabazi’: Portuan bakarrik jasoa.
12. *itzuri* ‘itzuri’: Portuko bakarrik ez bada ere, maiztasun handiena bertan du, *itzuri fan* modura erabiltzen da batez ere:
korrika itzuri fanaken deuz esan gabe Lazkanotegi 2001
13. *–ka* atzizkiaren erabilera pleonastikoa modu aditzondoak sortzeko: *begíraka, kantárika, kontárika*.
14. *kañibel* ‘kanabera’: aldaera gehiago izan arren, Portuan bustidurarekin entzuten da.
15. *ko(r)ropillo* ‘korapilo’
16. *mixi* ‘lehenbizi’: hiztunen oharmenaren aldetik portuarren ezaugarri nabarmenenetako bat: bat heldu da honetan Lekuona anai-arrebek emandako erantzuna, adibidez, Bordariren lekukotasunarekin (1981). *Melexi* aldaera ere entzun ohi da.

17. *niri* pertsona izenordainaren datiboa: Hondarribian eta Irunen hedatuagoa den *niri* aldaerarekin batera, portuar jendeak *niri* erabiltzen du:

*árk emáten nau **níri** présijwa*

***níri** tokátu sittán urtí urá*

Ez da, ordea, deklinabidearen beste kasuetara zabaldu:

***neré** oponíjwa*

18. *noskero* & *noskargero* ‘honezkero, gaurgero’ Let & Or corpusean jasoa da bi aditzondoak gurutzatuta sortua dirudien bigarren aldaera; lehenbizikoa, berriz, neronek jasoa da.

19. *obetijo* aditzondoaren aldaera: Hondarribian ohikoak diren *obéto(go)* ‘hobeto’ eta *ókiyo(go)* ‘hobekiago’ aldaerekin batera, marinel jendeak bien nahasketatik sortua dirudien *ótiyo* ‘hobetiago’ aldaera berria erabili ketu du:

*Pwes, wán nik **ótiyo** atzamáten dut [Hondarribia]*

*Eta wán mariñela pwes **ótiyogo**.*

20. *omen* ‘hemen’: Portuan ohiko aldaera disimilatua, beste hiztun hondarribiarren artean ere jaso daiteke lekukotasunen bat.

21. *oriyek* eta *urayek* erakusle pluralak Portuan bakarrik entzuten dira:

***Oriyeken** koñá(d)wa sen*

*Gú, es pentzátu e, (...), **uráye(k)** bisin líxto es gára gu e.*

Ez dira aldaera bakarrak, *óyek* eta *áyek* ere entzun baitiezazkiokegu hiztun portuar berari. Irunen XX. mendearen hasieran ere erabiliko ote ziren? Lopetegi bertsolariaren lekukotasun idatziaren arabera, bai, behintzat:

*borbontarrak nagusi emen, / gure Fuen ta lege ederrak / **urayek** kendu zituzten
karlist' **oriyek** dese oasko / bañon logratu ezin / **oyen** indarrak ez dira txarrak*

22. *txalfo* ‘salbo, libre’: *txafo* aldaera ere badu (Mendizabal 1991).

3.1.2. Hondarribiko hizkeraren aldaera lexikoak

Bi hizkerak hobeto bereizteko bilaketa zehatzagoa egin beharko litzatekeen arren, hona Hondarribian ohikoak diren zenbait aldaera. Aldaeron eremua ez dator beti bat, eta hitz-sorta osatu beharko delakoan banago ere, har bedi abiaburu modura.

Hondarribiko eta Irungo hizkeren arteko aldea hitz pare bat hartuta egin liteke:

Hondaribia	Irun eta Jaitzubia	Euskara batua
<i>maidýa</i> & <i>maidíña</i> <i>paidýa</i> & <i>paidíña</i>	<i>amáutxija</i> <i>atáutxija</i>	amabitxi aitabitxi

Hondarribiko aldaera nagusiak gaskoitik datozen (Palay s.v. *payrí* ‘Parrain; usité aussi pour grand-père’ eta s.v. *mayrie* ‘Marraine’), eta OEHn Gipuzkoako Beterrian eta Gipuzkoako eta Bortzirietako goinafarreraz jaso dira horien lekukotasunak. Irunen ez dago halakorik, ordea. Baino bertako aldaerek balio digute Jaitzubiko hizkerak Irungoarekin duen lotura berriz ere adierazteko. Hiztunen oharmenean, gainera, bizirik dago bereizketa, Florentxo Arrietak aski argi adierazi zidanez.

Hona, hortaz, behin-behineko aldaera-sorta:

- | | | |
|--|---|--|
| 1. <i>ainara</i> ‘enara’ | 18. <i>ibaki</i> ‘ebaki’ | ugarixeago |
| 2. <i>alisikan</i> & <i>aleis</i>
‘alegiaz’ (Irunen cf.
Mas 1955 s.v.
<i>aleguiya</i>) | 19. <i>idortzi</i> ‘igurtzi’ | Hondarribian baino. |
| 3. <i>anbeste</i> ‘hainbeste’
& <i>onbeste</i>
‘horrenbeste’: diptongorik gabeak Hondarribian jaso ditut, ez Irunen. | 20. <i>ijoldi</i> ‘uholde’: Jaitzubian <i>ejóla</i> eta Irunen <i>ueldia</i> jaso ditut. | 32. <i>pallako</i> ‘balaku’ |
| 4. <i>atelarte</i> ‘aterrune’ | 21. <i>ikasi</i> ‘jakin’ | 33. <i>pitxindor</i>
‘betxindor, bekatxo’ |
| 5. <i>atxaki</i> ‘aitzakia’ | 22. <i>irikin</i> ‘irakin’ | 34. <i>ple-ple</i> ‘blai-blai’ |
| 6. <i>autziki</i> ‘ausiki’ | 23. <i>jítáya</i> ‘igitaia’: Jaitzubian <i>igitia</i> ere jaso dut. Irunen Elosegik <i>irityia</i> (Uranzu 1994) eta Elena Olaitzola lagunak <i>i(g)ítiya</i> (ahoz esana). | 35. <i>portugar</i> ‘portuar’: ez da aldaera bakarra, baina maiz entzuten da. |
| 7. <i>axitegi</i> ‘hazitegi’ | 24. <i>jolas</i> ‘hitz’: Masek <i>jolasa</i> Irungo <i>armoniya</i> ‘conversación’ hitzaren sinonimotzat eskaini zuen. | 36. <i>potixa</i> ‘potoa, ontzia’ |
| 8. <i>beñpein</i> ‘behinik behin’: Irunen hedatuagoa da <i>béñpin</i> aldaera. Eta Jaitzubian? | 25. <i>kantto</i> ‘txoko, gordeleku’ | 37. <i>prexega</i>
‘paraguayo, muxikaren antzeko fruta’ |
| 9. <i>betesal</i> ‘betazial’ & ‘betilea’ | 26. <i>kañuto</i> ‘iturri, txorrota’ | 38. <i>progu</i> ‘entierro’ |
| 10. <i>bigar</i> ‘bihar’: beste aldaerekin batera. | 27. <i>kapelu</i> ‘boina’ | 39. <i>saiskitik</i> & <i>saskitik</i> ‘jatorriz, etorkiz’ |
| 11. <i>birexi</i> ‘bereizi’ | 28. <i>kumun</i> ‘komuna’ | 40. <i>sati-sati egin</i> ‘zati-zati egin, xehatu’ |
| 12. <i>daldariko</i> ‘dardara’ | 29. <i>mendariya</i> ‘askaria’ & <i>mendáittu</i> ‘askaldu’. | 41. <i>sipirtiñ</i> ‘zipritzin’ |
| 13. <i>errelojo</i> ‘erloju’ | 30. <i>napur</i> ‘lapur’ | 42. <i>txarranpiya</i>
‘txarranpina, elgorria’: cf. <i>charrampic</i> & <i>charrampi</i> gaskoiak (Palay). |
| 14. <i>erreztun</i> ‘eraztun’ | 31. <i>non:</i> aldaera bakarra dirudi Portuan eta Akartegin, beste auzoetan eta Irunen <i>nun</i> ere erabiltzen da, eta azken hau Irunen | 43. <i>uker</i> ‘oker’ |
| 15. <i>eskisal</i> ‘azazkal’: Bonapartez geroztik jasoa, cf. Irungo <i>azazkala</i> & <i>azkazala</i> & <i>azkazkala</i> aldaerak (Mas 1955) | 32. <i>urrikaldu</i>
‘urrikaldu’ & <i>urrikittu</i> ‘urrikitu’ | 44. <i>urrikaldu</i>
‘urrikaldu’ & <i>urrikittu</i> ‘urrikitu’ |
| 16. <i>esterrat</i> & <i>estarrat</i> ‘estrata’ | 33. <i>xianbrera</i>
‘fianbrera’: Irunen <i>xinbrera</i> (Olaitzola); cf. Orioko <i>ziembrera</i> (Iturain & Loidi 1995: 183) | 45. <i>xianbrera</i>
‘fianbrera’: Irunen <i>xinbrera</i> (Olaitzola); cf. Orioko <i>ziembrera</i> (Iturain & Loidi 1995: 183) |
| 17. <i>fuetek</i> ‘suziriak’ | 34. <i>zapai</i> ‘sabai’ | |

3.1.3. Hondarribiko eta Irungo hizkeren aldaera lexikoak

- | | | |
|---|---|--|
| 1. <i>aba</i> ‘aho’ | 4. <i>alkar</i> : <i>elkar</i> baino gehiago erabiltzen da. | 6. <i>antxur</i> ‘aitzur’: Irunen <i>aitzur</i> eta <i>atxur</i> ere jaso ditut. |
| 2. <i>aipatu</i> & <i>aittatu</i> , azken hau gutxixeago. | 5. <i>amaika</i> | 7. <i>antzara</i> |
| 3. <i>aizegua</i> ‘haize hego’ | | |

- | | | |
|---|--|---|
| 8. <i>apaiż</i> | 37. <i>fauxa</i> ‘hirusta mota, pagotxa’: | 57. <i>ittotti</i> ‘itoiti, itogin’ |
| 9. <i>arrautze</i> ‘arrautza’ | frantsesetiko | 58. <i>itxi</i> |
| 10. <i>asnase</i> & <i>asnasi</i> ‘arnasa’ | mailegua (cf. FHV
<i>farouch(e)</i>) | 59. <i>itzē</i> ‘iltze’ |
| 11. <i>attatto</i> | Mitxelenaren arabera. | 60. <i>ixtu</i> ‘txistu’ |
| 12. <i>bakotxa</i> | Irungo gaztelaniaz | 61. <i>jaiki</i> |
| 13. <i>barkatu</i> | ‘diru asko’ | 62. <i>jantzī</i> |
| 14. <i>barren</i> & <i>barru</i> , azken hau apalago. | adierazteko ere | 63. <i>jaski</i> ‘saski’: bi herriean jaso ditut lekukotasunak, baina <i>saski</i> aldaera ere erabiltzen da. |
| 15. <i>belarri</i> | erabili izan da; ez, ordea ‘suerte ona’ adierazteko (Uranzu 1994). Beste aldaerak Lapurdin eta Zuberoan (OEH). | 64. <i>jostatu</i> |
| 16. <i>beldur</i> : <i>bildur</i> baino gehiago erabiltzen da. | 38. <i>gaiendu</i> ‘gailendu’ | 65. <i>kabija</i> ‘habia’ |
| 17. <i>beste</i> | 39. <i>Gaiskibel</i> ‘Jaizkibel’: aldaera bakarra ez bada ere, hala entzun daiteke bi hizkeretan. | 66. <i>kardineru</i> ‘karnaba’ (gazt. ‘jilguero’): Azkuek Irunen <i>kardineru</i> . |
| 18. <i>betti</i> & <i>gotti</i> : <i>bera</i> eta <i>gora</i> ere erabiltzen dira. | 40. <i>Gaitzubiya</i> ‘Jaitzubia’: Hondarribian aldaera hedatuena. | 67. <i>karrika</i> & <i>kale</i> : bigarrena gehiago erabiltzen da. Izen berezi modura gelditzen ari da lehenbizikoa. |
| 19. <i>bixki</i> ‘biki’ | 41. <i>galdetu</i> ‘eskatu’ | 68. <i>kato</i> ‘katu’ |
| 20. <i>borroka</i> | 42. <i>gazta</i> | 69. <i>ke</i> |
| 21. <i>bulkatu</i> ‘bultzatu’ | 43. <i>geresz̄i</i> | 70. <i>kider</i> ‘gider, kirten’ |
| 22. <i>burni</i> ‘burdina’ | 44. <i>giltzurdin̄</i> ‘giltzurrun’ | 71. <i>kokotz̄</i> ‘kokots’ |
| 23. <i>eju</i> ‘oihu’ | 45. <i>girixi</i> ‘geriza’: eta <i>giriz̄ portua</i> Lopetegi irundarrak. | 72. <i>kontu egin</i> ‘zaindu’ eta <i>kontzen</i> ‘zaintzen’. |
| 24. <i>erantzi</i> ‘erantzi’ | 46. <i>gorputz</i> | 73. <i>labañ</i> ‘labana’ |
| 25. <i>erriyo</i> & <i>irriyo</i> ‘ibai’ | 47. <i>gottinai</i> ‘goragale’ | 74. <i>laja</i> ‘laga, utzi’ |
| 26. <i>esan</i> | 48. <i>gurutze</i> | 75. <i>lintzura</i> ‘zingira’ |
| 27. <i>eskapo</i> ‘ihes’ | 49. <i>gutxi</i> | 76. <i>loi</i> ‘lohi’: <i>lokatz̄</i> baino gehiago. |
| 28. <i>eskatu</i> ‘askatu’ | 50. <i>idurittu</i> ‘iruditu’: <i>iruditu</i> ere entzun daiteke, batez ere Irunen. | 77. <i>mandatuak</i> ‘erosketak, enkarguak’ |
| 29. <i>eskumutur</i> | 51. <i>igo</i> & <i>ijo</i> ‘igo’ | 78. <i>masall</i> ‘masail’: eta <i>maträllesúrra</i> nahiz <i>matélesúrra</i> ‘mandibula’. |
| 30. <i>eskuri</i> : <i>eskubi</i> batez ere gazteen artean. | 52. <i>iguñ</i> ‘higuin’ | 79. <i>meyar</i> ‘mehar’ |
| 31. <i>esne</i> | 53. <i>ireki</i> & <i>iyeki</i> | 80. <i>miño</i> ‘baina, baino’ |
| 32. <i>este</i> ‘heste’ | 54. <i>iretzi</i> ‘irentsi’ | 81. <i>negar</i> |
| 33. <i>etzan</i> | 55. <i>irurogei</i> | |
| 34. <i>euli</i> | 56. <i>isugarri</i> | |
| 35. <i>euskara</i> & <i>euskera</i> & <i>uskara</i> : ordena horretan gehien erabiltzen denetik gutxienera. | | |
| 36. <i>far</i> ‘barre’ | | |

82. <i>omotu</i> ‘umotu’	91. <i>pixa</i> & <i>pixalle</i> ‘pixagale’.	102. <i>ttopara</i> ‘topada, ospakizun berezia’: Irungo lekukotasuna Loidi 1987 lanaren arabera.
83. <i>orain</i>	92. <i>piztu</i>	
84. <i>ordian</i> ‘ordea’	93. <i>portxa</i> ‘bortxa’	
85. <i>ore</i> ‘hodei’: Bonaparte eta Azkuez geroztik.	94. <i>putzura</i> ‘uretara’	
86. <i>osin</i> ‘asuna’	95. <i>sanpatu</i> ‘zanpatu’	103. <i>txerri:</i> aldaera neutroa & <i>txerristegi</i> ‘txeritokia’
87. <i>pago</i>	96. <i>suge</i>	
88. <i>pake</i>	97. <i>sugur</i> ‘sudur’	104. <i>txingurri</i> ‘txindurri’
89. <i>pekatu</i>	98. <i>susmur</i> ‘surmurra, zurrumurrua’	105. <i>txokon</i> ‘sakona’
90. <i>pinpilipauxa</i> ‘tximeleta’: egungo hiztun askoren eguneroko hizketan erabiltzen ez bada ere, ezaguna da. Irunen <i>pinpilinpoxa</i> jaso zen <i>Erizkizundi Irukoitzean</i> (EI).	99. <i>tanto</i> ‘tanta’ eta <i>xorta</i>	106. <i>txokor</i> ‘txekor’
	100. <i>ttiki:</i> izenondoaren ohiko aldaera; izen berezietan, hala ere, <i>txiki</i> erabili ketu da, eta <i>txikittu</i> ‘xehatu’.	107. <i>txukatu</i> ‘xukatu’
	101. <i>ttirritta</i> ‘kilkerra’	108. <i>uda</i> eta <i>ez udara</i>
		109. <i>ukittu:</i> <i>ikuttu</i> aldaera askoz apalago.

3.2. Hitzak

3.2.1. Portuko hizkeraren hitzak

1. *aisa!*: diosal modura erabiltzen du marinel-jendeak beste lagun batekin topo egiterakoan. Nabarmena oharmenaren aldetik.
2. *aketto* ‘gizagaixo’: *Ai gizajo aketto arraio!* Lazkanotegi 2001
3. *amor eman* ‘amore eman’: maiztasun handia du.
4. *anguxatu* ‘alditxartu’: “*Anguxá, anguxá éiñia etórri nak. Anguxátua, ni?*” Bordari 1981: 302. Larrasqueten zubererazko *engoxat-ekin* badu zerikusia? Azken hau *engoetxa’s* ('tomber en syncope') biarnesetik mailegatua².
5. *atzaman* ‘atzeman’: Arrantzale jendeak oso erabilia, arrantza egiteari *arraia atzman* esaten baitzaio. Badu beste adiera bat, ‘iruditu’: *nik ori eztut ondo atzamaten* ‘hori ez zait ondo iruditzen’. Beste gizataldeetako hiztunen artean ere entzuten da, batez ere marinel jendearekin eguneroko harremana izan duten kaletar eta baserritarrek erabiltzen dute. Bonapartez geroztik Hondarribian jasoa.
6. *baxa!* ‘loquia, nahasmendua’.
7. *blagan* ‘hizketan’: Portuan erabiltzen da batez ere. Har gogoan frantsesezko *blague*: ‘broma, cuento’.
8. *bufara* ‘ufada, bafada’ (Bordari 1981: 302).
9. *doallá-doallá egin* ‘egurra eman’ (Let & Or).
10. *erreka* ‘etxe tartea’ (Alzola 1994).
11. *fiyako* ‘kolpea, haizearen ekinaldia’ (Bordari 1982).

² cf. OEH s.v. *engoxatu* & *engoixatu*, *ingoxatu* & *ingotxatu* ‘desmayarse, desfallecer’ eta Palay s.v. *engoéch* ‘angoisse, effroi’ nahiz *engoéche* ‘syncope’.

12. *fri* (*antxua* __) ‘frexkoa’: arrain-saltzaileen oihua kalez kale ibiltzen zirenean. Gaur egun gero eta gutxiago erabiltzen da, jakina.
13. *ingrija* ‘inbidia’ (Bordari 1981).
14. *irago* ‘igaro’: aldaera hau ere nabarmena da oharmenaren aldetik. Nahiz eta arrantzale-jendearekin harremana duen hondarribiarren artean ere entzun daitekeen, Portuan du maiztasun handiena.
15. *ixtruante* ‘itxura arraroa duen pertsona, berexia’ (Mendizabal 1991).
16. *kalaro* ‘beti’ (Bordari 1981). Ez du maiztasun handirik gaur egun.
17. *kantal* ‘ertza, izkina, kantaila’: *ni arrittua begiraka kaiel kantaletik* Lazkanotegi 2001
18. *legera* ‘behar bezala’ & *legeko* ‘behar bezalako, peto-petoa’. Maiztasun handikoak, portuarrek bakarrik erabiltzen dituzte.
19. *makaloko* ‘sekulako, bikaina’ (Mendizabal 1991)
20. *malkarrot* & *makarrot* ‘porrota’: ohikoa portuarren artean gaur egun ere.
21. *maxina* ‘edozein ontzi, tresna’: mailegu garden hau hiztunen oharmenaren arabera arrantzale-jendearen hizkera-ezaugarri nabarmenetako bat da, nabarmenena ez bada. Hedadurari dagokionez, lapurteraz eta Gipuzkoako goinafarreraz erabilia dela adierazten du OEHk.
22. *mu(g)a* ‘tenore, garai’.
23. *natifoneko* ‘jatorri oneko’: *orí estúk natifónekwa!* cf. OEH s.v. *natifo*.
24. *onian* ‘agian’: gaur egun bizi-bizirik dagoen aditzondoa: *Marino Urrutia sen, ... ónjan (e)sautuko usú*.
25. *txarki* ‘gaizki’: Bonapartez geroztik jasoa, gaur egun ere erabiltzen da portuarren artean, hala ere, *gaizki* gehiago entzuten da.
26. *txinpunak* & *zipunpa* ‘suziriak’, hala ere, herrian hedatuago den *fréjak* gehixeago erabiltzen ote den nago.
27. *xai* ‘arrantza-tresnen biltegia’: arrantzaleen eguneroko hizkeran oso erabilia. Azkueren arabera frantseseko *chai*, *chais* du jatorria eta Lapurdin erabilia zen.

Itsas lexikotik

Hain eremu ugarietik aukera bat egitea txoil zaila gertatzen denez, egungo hiztunek hitzetik hortzera usatzen dituzten hitz ale batzuk ekarri dira hona. Ez dira multzoka bereizi, baina balio dute hiztegiaren zabaltasunaz jabetzeko:

1. *alabanda* ‘balanceo’, *alabanda egin* ‘escorar’: Irigoyenek jasoa (Alvar 1985, hemendik aurrera LMP) egun erabiltzen dute arrantzaleek, eta, gainera, beste adiera bat ere erantsi zaio: *kapelua eskubi aldera alabanda emana* (Mendizabal 1991).
2. *amuitz* ‘olatu-mota’.
3. *aroī* ‘itsas giroa’: Azkuez geroztik jasoa, arroketakoa arrantzan aritzen direnek asko erabiltzen dutena.
4. *arrola*: ‘arrantzaaren agiria, rol’, cf. OEH s.v. *arrola* ‘lista, registro, padrón’. Frantzesetik mailegatua? Gaskoiari dagokionez, cf. Palay s.v. *arrollamén* ‘inscription sur le rôle; enrolement’.
5. *arrosel* ‘bixigua’.
6. *atxamarta* ‘arrantza tresna’: hedatu egin da adiera eta ‘edozein tresna’ esanahiarekin erabili ohi da; *maxina* bezala, hitz nabarmena da oharmen aldetik.

7. *baltz egin* ‘arrantzaren partiketan erdi bana egin’: (ikus Letamendia 1994b) eta *konpanian*. Itsas girotik idorreko bizitzara *biyek baltz* esapidea ekarri eta lagun artean erabili ketu da.
8. *baxamára* ‘bajamar’ & *ple(a)mara* & *plemeara* ‘pleamar’: cf. OEH s.v. *baxamar* gaskoi jatorriaz gogoratzeko.
9. *baxo* ‘mendebala’ & *baxotar* ‘mendebaleko’: Bordarik erabilia (1982), adibidez, eta gaur egun ere bai.
10. *bixkurri* & *izkurri* ‘hazkurria’.
11. *erreuxxa* ‘arrain baztertua’, pertsonez ere esan liteke.
12. *eskalaproi* ‘eskalapoi’.
13. *eskifaia* ‘tripulazioa’: azken hogeita bost urteotan, gainera, herriko abesbatza ezagunaren izena.
14. *kroka* ‘kakoa, atuna jasotzeko gantxua’.
15. *lanbasa* ‘itsas ontziko erratza’: beste adiera bat ere hartu du, alegia, ‘moldakaitza, traketsa’ izenondoen parekoa, batez ere emakumeez esaten da. Hitz egokia da arrantzaleekin harreman handia duen jendearen artean ere erabiltzen dela esateko, eta behin baino gehiagotan zaila gertatzen dela erkidegoaren baitan bakarrik erabiltzen den ala ez finkatzea. Bordariren erabilera idatzian ere bada *lanabasa* aldaera.
16. *malote* ‘maluta’: atun arrantzan erabiltzen da, gaur egun badu beste adiera bat: ‘gorbata’ esan nahi du lagun artean.
17. *marlaxka* ‘itsas txoria’: Azkuez geroztik jasoa Hondarribian.
18. *motxokara* & *ballara* ‘arrain-multzoa’: adiera nagusia hori badute ere, beste edozein multzoz mintzatzeko erabiltzen dira. Bigarren hitza nabarmena da oharmen aldetik. Jakina, badira beste zenbait hitz arrain-moten araberako multzoak adierazteko.
19. *partamutu* ‘partiketan ematen den diru-saria’.
20. *punittu* ‘arrainak amuari heldu’. Ez dirudi itxura aldetik frantsesezko *punir* hitzaren oso bestelakoa.
21. *surbesta* ‘txano-mota’.
22. *ttapiku* ‘bela-mota’: eta begi bat tapatua ibiltzen zen arrantzalearen izengoiti modura hedatua.
23. *txotxo* ‘ontziko mutila’: idorrean ere edozein gazteri esaten ohi zaio.

Itsas lexikoan oinarritutako fraseologiaren adibideren bat edo beste ere ekar liteke, batez ere Mendizabalen bildumatik abiatuta (1991):

1. *brankara bota*: ‘norbaite aitzakiatzat jarri, errua besteri bota’
2. *lapa tokatu*: ‘deus ez tokatu’
3. *ixterra lorittu*: ‘deusetan ez aritzea’

3.2.2. Hondarribiko hizkeraren hitzak

Jaitzubia atal honetan ere Hondarribiko beste auzoetatik bereiz joaki dela adierazteko adibide bat baino gehiago eman daitekeen arren, nabamentzeko modukoa da baserri-tresna bat izendatzeko Jaitzubian eta Irunen *salabardo* dena, Hondarribiko beste auzoetan *palaxarde* dela. Oharmenaren aldetik, gainera, zenbait hiztunek ondo jasoa dute bereizketa.

- | | | |
|-----------------------------|---|-----------------------------------|
| 1. <i>abijan</i> ‘berehala’ | 2. <i>aideplano</i> & <i>aeroplano</i>
‘hegazkina’; <i>aireplannua</i>
ezaguna zaio, hala | ere,
Olaitzola
irundarrari. |
|-----------------------------|---|-----------------------------------|

3. *akulunbrera* ‘zomorro mota’;
‘fundamentorik gabeko laguna’ ere esan nahi du (Berta kua 1993). Irunen *akulimurdikua* adierazi dit Olaitzolak.
4. *amolatu* ‘izorratu’ (cf. gaztelaniazko *amolar* hitzaren ‘fastidiar’ adiera).
5. *andare* ‘martxa, abioa’: cf. gaztelaniazko *andar*.
6. *arraba* ‘marrubia’: cf. Palay s.v. *arague* & *arrague* & *harague* ‘fraise’ gaskoiak. Ikus OEH euskarazko aldaerak eta hedadura ikusteko.
7. *arri mimarri* ‘harri-mota’
8. *arruta* ‘bidea’ & *arrut!* ‘martxa! ospa!’: gaskoiarekin zerikusia du (cf. OEH *arruta*). Eta ba al du loturarik zubererazko *arrunt* aditzondoaren ‘enseguida, al instante’ adierarekin? Irungotzat eman zuten Masek (1955).
9. *artoxo* ‘trebe, iaio’
10. *aurki* ‘agian’: aditzondo honen bi balioak jaso zituen Masek Irunen (1955), hala ere, ‘laister’ eta ‘agian’.
11. *axula* ‘urdina’
12. *aznai* ‘aznahi, azkura’
13. *biasoi* ‘enbata, haizebolada’ (cf. gazt. *virazón*).
14. *billaba* ‘bihurri’
15. *enpo egin* ‘asetu’
16. *(er)reberrittu*
‘eraberritu’
17. *fuya-fuya* ‘hegazti-mota’
18. *inpromatu* ‘izorratu’
19. *isi* ‘hisia, grina’
20. *itxeki* ‘atxiki’: zenbait hiztunek eguneroko hizketan erabiltzen dute, nahiz eta oharmen aldetik marinel-jendearen ezaugarritzat eman.
21. *kaben* *egin*
‘zambullida’: Gaskoitik mailegatuaren itxura du: ikus *cap-én* preposizioaren adieren artean ‘dans, au fond de’, eta *anà dinqu'at cap-en* ‘aller, tomber jusqu’au fond, au bas’ (Palay). Irunen Elosegiren arabera (*salto*) *txorrotx egin* (Uranzu 1994).
22. *karranpa* ‘arranpa’: cf. frantsesezko *crampe*.
23. *kaudan* ‘arbusto-mota, madroño’: *kaudan kaudan duenak ez duenari eman* esaeraren berri eman zuen Bordarik (1982: 405).
24. *klarasoi* ‘argiune’
25. *kuxot* ‘edaria, edanaldia’: gaskoi mailegua (cf. Palay *couchòt* eta *couch*), Serapio Múgicaren arabera (Portu 1989: 437), alardeko kantineraren kupeltxoaren eginkizuna atsedenaldietañ
- soldaduei *kusota*
eskaintza *zen*. Lhandek eta Azkuek Lapurdiko eta Baxenafarroako *kutxot* eta *kutxut* aldaerak eman zituzten (Hondarribia 40). Gaur egun gutxi erabilia.
26. *luserna* ‘alfalfa’: mailegua (ikus frantsesezko *luzerne* eta *luzérne* gaskoia). OEHren arabera, nafarreraz eta lapurteraz erabilia.
27. *maiduz* *jantzi*
‘mozorrotu’ eta *ezagna, maidu ezagna* esapidea (Mayi Iza lagunak ahoz esana).
28. *marama* ‘itxura zainduko emakumea’: adineko jendeak erabilia, zentzu peioratiboan; cf. frants. *madame*.
29. *nere* deikia: ‘maitea, gaxo’ esanahiaren pareko, Barandiaranek Pasai Donibanen jaso zuen (1982).
30. *pajina* ‘auzolana’: cf. gaztelaniazko *fajina*.
31. *pikara* ‘ebakia’ & *pikatu* ‘(belarra) ebaki, moztu’
32. *raixta* & *raista* ‘pospolo’: nabarmena zenbait hiztunen oharmenean, OEHn bizkaierazko lekukotasunak eskaintzen dira *arrast* sarreraren bigarren adieran.

- | | | | |
|------------------------------------|---------------|--|---|
| 33. <i>suertiak</i> | <i>emanta</i> | 36. <i>txikana</i> ‘izkin egin’: frantzes mailegua (cf. <i>chicane</i>). | 38. <i>zillegardatu</i> ‘lardaskatu’: ikus Bordari (1981: 297) eta gaztelaniatiko mailegua (cf. <i>zalagarda</i>). |
| ‘ústekabean, | | | |
| halabeharrez’ | | | |
| 34. <i>tipatu</i> ‘txoria pausatu’ | | 37. <i>txoil</i> ‘oso’: Mas irundarrak <i>agitx</i> sarreran aipatua (1955). | |
| 35. <i>truara</i> | ‘enbata, | | |
| galerna’ | | | |

3.2.3. Hondarribiko eta Irungo hitzak:

- | | | |
|--|---|--|
| 1. (-n) <i>barrana</i> ‘barrena’ | Hondarribiko baserrian eta Irunen, Portuan zaila da entzutea; <i>oso</i> ere erabiltzen da. | geroztik jasoa. Eta <i>okalondua</i> . |
| 2. (-z) <i>gañera</i> | | |
| 3. <i>afera:</i> | Masek Hondarribikotzat emana, eta Uranzuk muga aldekotzat (1994). | 21. <i>artesi</i> ‘artezi’ |
| 4. <i>agindu</i> | | 22. <i>asienda</i> & <i>asinda</i> ‘azienda’ |
| 5. <i>ajola</i> | | 23. <i>askar</i> ‘laster; sendo’ |
| 6. <i>alde egin</i> | | 24. <i>asko</i> |
| 7. <i>ale</i> ‘banakoa’ & <i>alerik</i> ere <i>ez</i> | | 25. <i>aspertu</i> |
| 8. <i>alforja</i> ‘alproja’ | | 26. <i>astal</i> ‘aztal’ |
| 9. <i>alkandora</i> & <i>atorra:</i> bigarrena gutxiago, bereziki <i>atorra</i> ateriya bezalako esamoldeetan. | 27. <i>atanle</i> ‘otordu bikaina’: Azkuek mailegutzat jo zuen (frantsesezko < à table>). | 28. <i>ate</i> ‘ahate’ |
| 10. <i>alpargata</i> | | 29. <i>atera</i> |
| 11. <i>altxatu</i> ‘gorde’ | | 30. <i>atze</i> & <i>aurre</i> |
| 12. <i>amona</i> & <i>attona</i> | | 31. <i>aukeratu</i> |
| 13. <i>aña</i> ‘adina’ | | 32. <i>ayeka</i> & <i>alleka:</i> bigarren aldaera Irunen jasoa. Hitz hau zaila da Portuan entzuten. |
| 14. <i>anka</i> & <i>ankutzik</i> | | 33. <i>ayo</i> ‘aio, kezka’ |
| 15. <i>antzekoa</i> | | 34. <i>baserritar</i> |
| 16. <i>armiarma</i> | | 35. <i>begira</i> (<i>noren</i>) ‘zain’: Lopetegik: <i>begira nago</i> . |
| 17. <i>arrastelu</i> ‘esku area’ | | 36. <i>belardi</i> |
| 18. <i>arratz</i> ‘arrats, gaua’ | | 37. <i>bertan</i> |
| 19. <i>arrekonkon</i> | | 38. <i>beso-kosko</i> ‘ukalondoia’: Azkuez |
| 20. <i>arront</i> ‘oso’ & <i>arrontean</i> ‘erabat’: | | |
| lehenengoa batez ere | | |

53. *egal* 'hegal'
54. *eguberriak:* *gabonak*
gero eta gehiago
erabiltzen da.
55. *egur* & *zur*
56. *eguzkialde*
57. *eia* 'heia, ukuilua'
58. *elastiko* 'jertsea'
59. *endana* 'andana, talde,
ilara' eta Hondarribiko
endana berean 'aguro,
bizi-bizi' aditzondoa.
60. *eraso* 'euri jasa'
61. *erbiñure* 'erbinude'
62. *errero* 'burdina lantzen
duena'
63. *erriye(r)tan eman*
64. *Erromako* *zubi*
'ostadarra'
65. *eskerrak!*
66. *eskerrik asko*
67. *eskumuñak*
68. *esnatu*
69. *esperatu* & *zai egon*
70. *estarri*
71. *estomaka* 'urdaila':
mailegua, frantsesetik
(cf. *estomac*) ala gaskoitik
(cf. *estoumâc*)? Ipar
Euskal Herriko
literatur usarioan
aldaera nagusia (OEH).
Irunen *estomana*.
72. *fabores*
73. *faltxiki egin* 'huts egin,
trampa egin'
74. *far* 'barre' eta ez *irri*
75. *galdetu* 'eskatu'
76. *galtza*
77. *gerriko*
78. *girli* & *gerli* 'txistua'
79. *gor*
80. *guazaita* 'ugazaita' &
guazama 'ugazama':
Azkuek jasoak.
81. *guraise:* bi hizkeretan,
Bidasoa auzo
irundarreko hiztun
batek oraindik gogoan
du ama beratarraren
eraginez ttikitán
ixturrak, *gibelera,*
antzinera esaten
zituenean, lagunek nola
barre egiten zioten.
82. *iaio*
83. *ibai* 'ibia'
84. *idor* 'lehor' & *idortu*
'lehortu'
85. *iduri du* 'dirudi'
86. *ifin&* & *ifeñi* 'erein'
87. *igande* eta *ez jaia*
88. *ilbeltz:* eguneroko
hizketan hilabeteak
izendatzeko maileguak
erabiltzen badira ere,
hilabete-andana eskatu
eta tankera honetakoak
jaso ohi dira.
89. *illufa* 'sustantziarik
gabeko pertsona';
Irunen 'hauts bildua'
esanahia du.
90. *intz* 'hintz'
91. *iratze*
92. *irrist egin*
93. *iseba*
94. *isengotti* 'izengoitia'
95. *isotz* & *orma* & *jela*
96. *isutu*
97. *itz egin* & *mintzatu*
98. *jarri* eta ez *paratu*
99. *kalentura* 'sukarra'
100. *kanpana: eskila*
elkarketan jaso dut.
101. *karitta* &
kaitxa 'garitxa, garatxo'
102. *kaskalabar* &
kaskabar 'kazkabar,
txingor'
103. *katakatzintxa*
'katagorria, urtxintxa':
baserritar irundarren
lekukotasuna dakar
Uranzuk (1994).
Olaitzolak
katakutzintxa (a.e.).
104. *kaxota:*
'etxola, txabola' gaskoi
mailegua (cf.
Grosclaude s.v. *Case*).
XX. mendeko idazle
irundarrek bertakotzat
jotako *kaxotero* haren
eratorria da, segur aski.
105. *kirkill* 'kili-kilia'
106. *kisu*
107. *konten*
108. *kopeta*
109. *korrika*
110. *kukulutxa*
'kokolotxa, tosferina':
coqueluche frantzesetik
mailegatua (Sarasola
1986).
111. *kukuso*
'arkakuso'
112. *laja* 'laga, utzi'
eta *utzi*
113. *leiko*
'babarruna': hiztunen
oharmenean bi
hizkeretako hitz
nabarmenetako bat.
114. *lemixikoa*
'lehenbiziko'
115. *listatu*
'prestatu'
116. *lurra eman*
117. *maiñ*

- | | |
|---|---|
| 118. <i>mami</i>
'gatzatua, gaztanbera' | 138. <i>pisar</i> 'pixka,
apur': <i>pixar bat</i> &
<i>pixkat</i> |
| 119. <i>mandinga</i>
'mauka, aukera aparta' | 139. <i>poliki</i> & <i>polliko</i> |
| 120. <i>min</i> & <i>oinase:</i>
<i>miñez jarri</i> 'gaisotu' &
<i>miñez egon</i> 'gaiso egon' | 140. <i>sekulako</i> &
<i>berebiziko</i> |
| 121. <i>mingain</i> 'mihi' | 141. <i>selai</i> 'lau'
izenondoa. |
| 122. <i>nabiko</i> & <i>aski</i> | 142. <i>sendatu</i> |
| 123. <i>nekatu</i> | 143. <i>soro</i> |
| 124. <i>neskame:</i>
<i>neskato</i> ere jaso dut
inoiz. | 144. <i>soto</i> |
| 125. <i>ogi</i> & <i>gari:</i> <i>ogi-</i>
<i>ale</i> ere bai, baina
lantzen ez den
neurrian, gero eta
gutxiago entzuten da. | 145. <i>tefla</i> 'hirusta'
(ikus <i>fauxa</i>): frantses
mailegua (cf. <i>trèfle</i>).
Elosegiren arabera
(Uranzu 1994) <i>t(r)efla</i>
Bidasoa aldean
erabiltzen da. Ipar
Euskal Herrirako ikus
Lhanderen hiztegia. |
| 126. <i>oi</i> 'ohe' | 146. <i>tenore</i> 'ordu,
garai' & <i>sasoi</i> |
| 127. <i>ondo</i> | 147. <i>triku</i> |
| 128. <i>orain dela</i> | 148. <i>trumoi</i> |
| 129. <i>oratu</i> 'heldu' | 149. <i>txabola:</i>
<i>i(n)txola</i> ere bai. |
| 130. <i>oroittu</i> &
<i>gogoratu</i> | 150. <i>txal</i> 'txahal' |
| 131. <i>orpo</i> | 151. <i>tximista</i> |
| 132. <i>otordu</i> | 152. <i>txukuna</i>
'zotina' |
| 133. <i>oyan</i> 'oihan' | 153. <i>txurmijo</i> &
<i>txurníyua:</i> <i>ixúña</i> ere jaso
dut bi hizkeretan. ' |
| 134. <i>padera</i> &
<i>parera</i> 'zartagia': gaskoi
mailegua (cf. Palay s.v.
<i>padéne</i> , <i>padère</i> : 'Poêle à
frire généralement'),
antzeko aldaerak
Gipuzkoako
kostaldean eta Lapurdi
hurbilean, Azkainen
adibidez. | 154. <i>udaberri</i> |
| 135. <i>patar</i> 'aldapa'
& <i>malda</i> | 155. <i>udare</i> |
| 136. <i>piro</i> 'ahate':
Bonapartez geroztik
jasoa. | 156. <i>ugari</i> |
| 137. <i>pisu</i> 'astuna' | 157. <i>urbill</i> |
| | 158. <i>urruti</i> |
| | 159. <i>usai</i> |
| | 160. <i>xaguxar</i>
'saguzar' |
| | 161. <i>zorittu</i> 'artoa,
leikoa heldu' |

5. ONDORIOAK

- 1) Hondarribiko eta Irungo hizkerak batera aztertu eta sailkatu beharrekoak dira hizkuntz ezaugarri gehienetan bat baitatoz.

Azterketa honetako arau eta lexiko gehien-gehiena bi hizkerei dagokie: arauen %67a eta lexikoaren %63a, hain zuzen ere:

Hedadura	Arauak	Lexikoa
Portua	11	75
Hondarribia	16	84
Hondarribia & Irun	54	270
Denetara	81	429

Hizkuntz ezaugarrion hedadurari begiratuta, bi lotura nagusi egin daitezke:

- a) Hondarribiko eta Irungo hizkerek euskara nafarrarekin batez ere eta lapurterarekin duten harremana erakusten du ezaugarri-mordoxka batek. Batzuetan ezaugarrion Gipuzkoan bi hizkerotan bakarrik topatzen dira eta beste batzuetan Donostiarra bitarteko hizkera gehienetan:

BILAKABIDEA	HEDADURA
1. Sinkopa	Euskara nafarrean, nafar-lapurterako aldaera batzuetan lexikalizatua eta Gipuzkoan Oiartzunen ahulago. Donostian ez.
2. Goranzko diptongoak	Nafarroan Baztan-Ultzamatik ekialdera eta Ipar EH osoan. Gipuzkoan Oiartzunen, Errenterian eta Lezon ez dira ohikoak, salbuespenak salbuespen. Arano eta Goizueta nafarretan ere ez.
3. Datibo, genitibo eta destinatibo pluralen atzizkiak	Nafarroan Beran badira lekukotasunak; erakusleean antzeko adibideak dituzte Arantzan eta Baztanen. Gipuzkoan ez dago halakorik Gaintxurizketatik mendebalera.
4. Hitzoinen bukaerako <i>u/o</i> eta <i>i/e</i> nahasketak	Bokala altxatzea Nafarroako mendebalean joera nabaria da oro har. Hitz bukaeran bilakabidea Gipuzkoako Pasaiaraino iristen da, Donostiarra ez.
5. <i>ur</i> izena singularrean leku kasuetan	Oiartzunen eta Ipar EHn gutxienez.
6. <i>-keta</i> eta <i>-ketari</i> atzizkiak	Nafarroako Bidasoaldean eta Baztanen, Gipuzkoan Pasaiara bitarte.
7. <i>-tt-</i> pluralgilearen aldaera NOR-NORI-NORK sailean	Nafarroako erdialdean, nahiz eta ez den hizkera guztietan homogeneoa. Gipuzkoan ez da hedatu Lezo, Errenteria eta Oiartzunera.
8. <i>-tt-</i> pluralgilearen aldaera NOR-NORK saileko hiketan	Nafarroan Bidasoaldetik Eratsunera bitarte gutxienez, Goizuetan ere bai. Gipuzkoan Oiartzunen <i>-zki</i> - aldaerarekin

	batera, Erreenterian aztarnaren bat, baina Lezorekin batera isoglosaren beste aldean.
9. <i>nioken & nionen NOR-NORI-NORK saileko adizkien hiketan</i>	Nafarroan Bortzirietan, Malerrekan eta Basaburu Tzikian (Areson, Leitzan eta Goizuetan izan ezik) ageri da. Intza eta Larraunen ez. Gipuzkoan bada Donostiara bitarte.
10. <i>-a- nagusi iraganeko trinkoetan</i>	Nafarroan eta Ipar EHn, Gipuzkoako iparraldean badira aztarnak, gutxienez. Hedadura zabalagokoa da, Deba arroko hizkeretan ere gertatzen baita.
11. <i>2. pertsona singularreko y- aurrizkia:</i>	Ia Nafarroa osoan, Gipuzkoan Erreenteriara bitarte gertatzen da. Donostian ez.
12. <i>-ki aditz atzizkia</i>	Aldeak alde, nafar-lapurteran eta Nafarroa gehienean. Gipuzkoan Lezon, Oiartzunen eta Erreenterian bai. Donostian ez, nahiz eta arrastoren bat baden.
13. <i>-u- erroa edun aditzean</i>	Lapurteraz eta nafarreraz ohikoa, baita Oiartzunen eta Lezon ere.
14. <i>izan-en singularreko 3. pertsonan -e</i>	Lapurdin eta Nafarroan, Gipuzkoan Oiartzunen, Erreenterian eta Lezon ere bai, baina <i>-a-</i> maiz erabiltzen da.
15. Aditzoina	Ekialdean erabiltzen da Gipuzkoako iparrekialdetik abiatuta, baina aditzoina eta partizipioa ez dira ondo bereizten Gipuzkoan eta Nafarroan.
16. Partizipioa + <i>-a</i> eta <i>emanta & eginta</i>	Lehenbizikoa ohikoa da nafar-lapurteran eta Nafarroako iparraldean. Gipuzkoako iparraldean eta Nafarroako mendebalean bi aldaerak batera erabiltzen dira. <i>emanta</i> bezalakoak ohikoak dira Pasai Donibanen eta Lezon. Donostian gaur egun ez, baina badira lekukotasun idatziak.
17. Perpaus osagarrietako <i>-en</i> menderagailua	Nafarroatik eta Lapurditik ekialdera.
18. <i>aski izan + perpaus osagarria</i>	Nafarroan, gutxienez.
19. <i>-elik(an)</i> denbora eta modu perpausetan	Lezo eta Oiartzundik ekialdera.
20. Lexikoa:	
(1) Aldaerak: <i>aizergua, antzara?, asnase?, attatto, barren & barru, betti & bera, eskuñ & eskubi, euskara & euskera & uskara, girixi, gottinai, iduritu, ittotti, jostatu, kider, miño, ordian, ore?, pinpilipauxa, ttirritta.</i>	
(2) Hitzak: <i>afera, alforja vs. alþroja, altxatu ‘gorde’, arratz, arront, askar, piro & ate, atera vs. irten, ayeka & alleka, ayo, bila, deus, ebain-ebain, ebatzi, eguberriak & gabonak, eia, endana, eraso?, estomaka, galdetu, girli?, idor, iduri du, ifiñi, iratze, isutu, katakatxintxa, kaxota & txabola, patar.</i>	

- b) Erdialdeko euskalkiarekin duten harremana erakusten du bigarren ezaugarri-mordoxkak. Aipatzeko modukoa da zenbait arauen eremua Gipuzkoako iparrekialdea dela, eta beste batzuetan mendebaleko eta erdialdeko euskalkietan betetzen direla bilakabideak:

BILAKABIDEA	HEDADURA
1. <i>a > o</i>	Oiartzunen, Lezon, Lasarten, Hernanin ere ezaguna da bilakabidea. Donostiako Igeldon ere badira adibideak.
2. <i>-aw > -ab</i> bokalaren aurretik	Oiartzunen eta Lezon aztarnak.
3. <i>aw diptongoa murriztea</i>	Lezon badira adibideak.
4. <i>z- > tx-</i>	Gipuzkoan ohikoa, hala ere, badirudi beste hizkeretan maiztasun handiagoa duela bilakabideak.
5. Datibo epentesidunak	Oiartzunen, Lezon eta Pasaien ohikoak dira.
6. <i>-an</i> genitibo eta destinatibo singularreko aldaera	Mendebalean eta erdialdean ohikoena.
7. <i>-a</i> berezkoa galtzen da	Gipuzkoan batez ere ekialdeko hizkeretan, Nafarroa hurbileko hizkeretan nabarmena da.
8. <i>neuni</i> izenordaina	<i>neoni</i> sailekoak –baina ez <i>geoni</i> beti– Gipuzkoako iparrekialdean Lasarte eta Oriora bitarte. Ez, ordea, Arano eta Goizueta nafarretan.
9. <i>zein</i>	Gipuzkoa osoan eta Bizkaiko iparrekialdean.
10. Adberbioak eta predikatuak mugagabeen edo partizipioan	Mendebaleko eta erdialdeko ezaugarria, Bortzirietara iristen da.
11. <i>-onem > -oi</i>	Bizkaian eta Gipuzkoan, eta baita Goizuetan ere.
12. NOR-NORI saileko berezko adizkien galera	Oiartzunen ere erabiltzen dira NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sailetako adizkiak.
13. <i>nijoia</i>	Erdialdeko euskalkian, Nafarroan Aranon eta Sakanako mendebalean.
14. <i>-z-</i> pluraleko morfema <i>izan</i> eta <i>egon</i> aditzetan	Morfema ezaguna Gipuzkoan Donostiarra bitarteko hizkeretan. <i>Izan</i> aditzean Lapurdi hurbilean (Hendaia, Donibane Lohizune) ez, ordea. Bortzirietan, bai.
15. Aspektu etorkizuna: <i>-go atzizkia</i>	Mendebalean eta erdialdean. Nafarroan, Bortziri, Malerreka eta Leitzatik ekialdera <i>-en</i> nagusi, eta lehia Goizuetan.
16. <i>-e-</i> erroa <i>izan</i> aditzean ugariago	Lehia Gipuzkoako iparrekialdean (Erreenterian, Oiartzunen). Ohikoa da <i>-e-</i> erdialdeko euskaran, baina Nafarroako mendebalean eta Lapurdiko itsasaldean ere agertu ohi da.
17. NOR-NORK saileko adizkietan <i>au-</i> & <i>a-</i> erroak:	Gipuzkoako iparrekialdeko hizkeretan ohikoa (Oiartzun, Erreenteria, Lezo). Eta Nafarroako Aranon. Ez, ordea, Bortzirietan eta Goizuetan. Eta <i>nak</i> & <i>nan</i> alokutiboak Pasaien, Donostian eta mendebalerago ere bai.
18. <i>egin</i> indargarria	Mendebaleko eta erdialdeko ezaugarria.
19. Perpaus osagarrietako – <i>enik</i> menderagailua	Mendebaleko eta erdialdeko hizkeretan.
20. Lexikoa:	(1) Aldaerak: <i>amaika, apaiz, beste, bultzatu & bulkatu, erriyo, esan, gazta, gutxi,</i>

irurogei, itxi, kale & karrika, ke, laja, masall, pago.

(2) **Hitzak:** *ajola?, amona & attona, anka, atze & aurre, baserritar, bertan, bi beti, biali, bukatu, errero, far, guraize, ilbeltz, itz egin & mintzatu, jarri, korrika, laja, mai, mami, nabiko & aski, nekatu, neskame, gari & ogi, oi ‘obe’, ondo, oratu, triku, udaberri, xaguxar.*

c) Gutxi dira bi hizkerotan bakarrik jasotako hizkuntz ezaugarriak:

BILAKABIDEA	HEDADURA
1. Adlatiboan <i>-ara & -era</i>	Lehenbizikoaren lekukotasunak beste hizkera batzuetan topatu ohi badira ere, aipatzeko modukoa da bigarren aldaera ez dela ageri inguru hurbilean (Oiartzun, Lezo eta Pasaian).
2. <i>onontz sailekoak</i>	Inguruko beste hizkera batzuetan (Oiartzun, Lezo, Pasaia, Arano, Goizueta) <i>-untz</i> da atzizkia. Lapurdi, Bortziriak eta Mallerrekatik ekialdera <i>hunat</i> tankerakoak.
3. <i>goa & fas</i> aginterako adizkiak	Bortzirietan badira <i>g-dun</i> aldaerak: <i>guaye</i> ‘hoa’.
4. <i>possible izan</i> perifrasaren maiztasun handia	Ahalerako adizkiak gutxi erabiltzen dira hizkerotan, agian beste hizkera batzuetan baino gutxiago. Nafarroan eta Ipar EHn bestelako egitura perifrastikoak erabiltzen dituzte.
5. Lexikoa: adibide gehiago topa daitekeela dirudien arren, ez dira asko: <ul style="list-style-type: none"> (1) Aldaerak: <i>gaiendu, jaski?, kardiñero, mandatnuak??,</i> (2) Hitzak: <i>atanle?, beso-kosko, elastiko ‘jertsea’, leiko, mandinga, txukuna ‘zotina’.</i> 	

d) Bestelako hedadura dute beste hizkuntz ezaugarriek:

BILAKABIDEA	HEDADURA
1. <i>i ondotik a > e</i>	Hego EH, baina Gipuzkoako ekialdeko hizkeretan zantzuak bakarrik.
2. <i>i + a, e, o > [j] epentesia</i>	Bizkaiko ekialdea, Gipuzkoako Deba arroa eta iparraldea, Nafarroako Bortziriak, Sunbillako, Arano eta Sakana eta Lapurdiko <i>kostatarra</i> .
3. <i>e + a, e, o > i</i>	EH osoan, eremu trinkorik gabe.
4. <i>o + a, e, o > u</i>	EH osoan, eremu trinkorik gabe.
5. Asimilazio-bustidura indartsua	Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroako Bortziriak (Etxalar izan ezik), Bertizarana, Lantz, Ultzama, Atetz, Imotz eta Sakana (Burunda izan ezik) eta Lapurdiko <i>kostatarra</i> .
6. <i>[xw-J] > f-</i>	Inguruko hizkeretan ez. Beste eremu batzuetan bai: Oñati, Burunda, Aezkoa.
7. <i>/f/ fonemaren erabilera</i>	Gaur egun zabaldu egin bada ere, indartsua izan da <i>f > p</i> bilakabidea Bizkaiko ekialdean, Gipuzkoa osoan eta

	Nafarroako mendebaleko hizkera batuetan.
8. /x/ belarea	Hego EH, oro har.
9. -ikan aldaera	Gipuzkoako iparraldea, Nafarroako iparmendebala eta nafar-lapurtera. -ikanen pleonastikoa, berriz, Pasaian betetzen da eta Erreenterian ere ezaguna da.
10. -te atzizkia	EHko erdigunea: Oiartzun, Erreenteria, Lezo, Pasaia, Donostia (nahiz eta homogeneoa ez izan) eta Goizueta nafarra, besteaak beste.
11. edo juntagailu hautakaria	Euskara giputz gehiena eta Nafarroa gehienean.
12. Lexikoa: <i>aukeratu, padera.</i>	

2) Hondarribiko hizkerak baditu bertako gizataldeak eta auzoak elkartzen dituzten hizkuntz ezaugarriak. Ezaugarri hauek ez dira entzuten edo ez dute maiztasun handirik Irunen. Jaitzubia auzoko hizkera Irungoarekin batera doa gehienetan.

a) Hondarribiko ezaugarriak eta ez Irungoak:

- (1) Azentueraren alorrean bi silabaz goitikoen azentuaren kokagunea hitzoinaren bukaeraren arabera finkatzen da.
- (2) -ñogo muga adlatiboa.
- (3) eudek pertsona izenordain indartua.
- (4) Superlatiboaren -an aldaera.
- (5) nisen ‘nintzen’ & yisen ‘hintzen’.
- (6) zunen & zunen hikako adizkiak.
- (7) -zia atzizkia.
- (8) ketu aditz atzizkia.
- (9) -zkoan denborazko menderagailua.
- (10) alik eta... bitarte denborazko menderagailua.

(11) Lexikoa:

Aldaera lexikoak		Hitzak	
Hondarribia	Irun	Hondarribia	Irun
maidiya & paidiya	amautxi & atautxi	abijan	beila
ainara	enara	aideplano	abjona
anbeste	ainbeste	arraba	maraguriya
beñepain	benpin & benipein	aurki ‘agian’	
eskisal	azazkal	asnai	azkure
esterrata & estarrata	estrata	inpromatu	
ijoldi	uéldi	itxeki (& oratu)	oratu
jitaya	i(g)íittiya	kaben	txorrotx
mendarrya	meri(e)nda	klarasoi	
fuete		nere!	
kantto		pajina	anzolan
kañuto ‘iturri’	grifoa	palaxarde	salabardo
prexega		raixta	poxpolo
sipirtiñ	zípristiñ	tipatu	
		sillegardatu	lardaskatu

b) Hondarribian Irunen baino maiztasun handiagoa duten ezaugarriak:

- (1) *-i-z* bukatutako partizipio bisilabadunen aditz izen hirusilabadunak.
- (2) *e- > i-* eta bi bokalok nahastea.
- (3) Txistukarien neutralizazioa.
- (4) *d/r* nahastea.
- (5) *-yera* atzizkia.
- (6) Adizki trinkoen urritasuna.

Hondarribiko ezaugarrion hedadura eta lotura zabalagoak aztertuz gero, berriz ere ageri zaizkigu aipatzeko moduko bi multzoa:

a) Euskara nafarrarekin batez ere eta lapurterarekin duen harremana erakusten duen ezaugarri-mordoxka:

BILAKABIDEA	HEDADURA
1. Azentuera	Sistema bat dator oro har Bidasoaldeko hizkeretan. XVIII. mende hasierako lapurterak Hondarribikoaren antz handikoa da.
2. <i>-i-z</i> bukatutako partizipio bisilabadunen aditz izen hirusilabadunak	Nafarroan zehar (Bortzirietan ere bai). Gipuzkoan Oiartzun, Lezo eta Pasai Donibaneraino iristen da bilakabidea.
3. <i>-zia</i> atzizkia	<i>-zie</i> Nafarroan (Ultzama-Atetz lerrotik ekialdera) eta Ipar Euskal Herrian (Lapurdioko ekialdetik Zuberoa bitartean).
4. <i>ketu</i>	Bidasoaldean Sunbillara arte, Goizuetan ere bada arrastorik.
5. Lexikoa:	
1) Aldaerak: <i>maidiya & paidiya, autziki, daldariko, erreztun, idortzi, ikasi ‘jakin’, jolas, kapelu, napur, saiski, urrikaldu & urrikitu.</i>	
2) Hitzak: <i>amolatu, arraba, arruta, artoxo, asnai, erreberritu, isi, itxeki, kafen, karranpa, luserna, maiduz jantzi, nere!, pikara & pikatu, txikana, txoil.</i>	

b) Erdialdeko euskalkiarekin (eta mendebalekoarekin inoiz) duen harremana erakusten duen ezaugarri-mordoxka. Gipuzkoako iparrekialdeko hizkerak gogoan hartu beharrekoak dira:

BILAKABIDEA	HEDADURA
1. <i>e- > i-</i> eta bi bokalok nahastea	Gipuzkoan Oiartzunen eta Lezon, behintzat, bai; Pasai Donibanen <i>-u-</i> inguruan baldin badu. Donostian arrastoren bat.
2. Txistukarien neutralizazioa	Mendebala eta Gipuzkoako iparraldean.
3. <i>d/r</i> nahastea	Gipuzkoa osoan eta Bizkaiko iparrekialdeko hizkera batzuetan; Nafarroan Burundan behinik behin. Hala ere,

	gazteen artean ez da horren nabarmena.
4. <i>-yera</i> atzizkia	Erreenterian jaso zuen Mitxelenak.
5. Adizki trinkoen urritasuna	Irun eta Oiartzun aipatu zituen Azkuek. Lezon eta Erreenterian <i>eldu</i> erabiltzen da.

c) **Badira, halaber, Hondarribian bakarrik jasotakoak:**

- 1) *–ñogo* muga adlatiboa.
- 2) *eudek* pertsona izenordain indartua: hala ere, *eurak* modukoak mendebalean eta erdialdean aski erabiliak dira.
- 3) Superlatiboaren *–an* aldaera.
- 4) *nisen* ‘nintzen’ & *yisen* ‘hintzen’.
- 5) *zuken* & *zunen* hikako adizkiak.
- 6) Lexikoa: *eskisal, irikin, kantto, mendariya, pallako, ple-ple* aldaerak eta *akulunbrera, arri-mimarri, biasoi, fuya-fuya, inpromatu, kafen, kaudan, klarasoi, marama, pajina, truara* hitzak.

d) **Ezaugarriren batek bestelako hedadura du:**

BILAKABIDEA	HEDADURA
1. <i>alik eta.. bitarte</i>	Gipuzkeraz, nafarreraz eta lapurteraz usario idatzian.

3) **Hizkuntzaren ikuspegitik Portuko hizkera ez da horren berezia Hondarribiko eta Irungo hizkeren baitan.**

Hala diote lan honetan aztertutako kopuruek: jasotako arauen %14 eta lexikoaren %17 bakarrik jo baitira Portuko bereizgarritzat. Hortaz, hizkuntzaren ikuspuntutik zaila da Portuko hizkeraren berezitasunaz mintzatzea. Egia da, hala ere, lexikoan nabarmenxeagoa dela berezitasuna fonetika-fonología eta morfosintaxian baino, eta azterketa sakonagoak uste hori sendotuko lukeelakoan nago, aldaera eta item lexiko gehiago biltzea aski erraza delako; baina aldakortasuna alor horretara mugatu beharrekoa dela iduri du.

Hedaduraren araberako loturak egiten hasiz gero, oraingoan nabariagoa da Nafarroarekin eta Lapurdirekin hizkera honek duen lotura erdialdeko euskalkiarekin duena baino:

a) **Bada Portuko hizkera Nafarroarekin eta Lapurdirekin lotzen duen ezaugarri-eskutada bat:**

BILAKABIDEA	HEDADURA
1) Aferesia	Nafarreraz eta lapurteraz; Gipuzkoan Oiartzungo Ergoienen arrunta eta Donostiako ekialdeko auzoetara ere iristen da.
2) <i>-kotz, -lakotz, -tekotz</i> aldaerak	Hizkeren artean maiztasun aldea bada ere, nafarreraz, Ipar EHn eta Gipuzkoan Erreenteria-Lezora bitarte.
3) NOR-NORK adizkiak	Lapurteraz; nafarreraz eta Gipuzkoan, baina ez hain

NOR-NORI-NORK sailean	erabatekoa: Usurbil-Donostia-Hernani lerroan abiatu eta Bortziriak (Bera eta Etxalar), Doneztebe eta Bertizarana bitartean.
4) Galderetako <i>al behar ez</i>	Nafarreraz (Araitz, Larraun eta bi Basaburueta izan ezik) eta Ipar EHn.
5) <i>benik emendiozko lokailua</i>	Nafarreraz Larraunen jasoa.
6) Erlatibozko eta kausa perpausetan (<i>balin</i>) <i>ba-</i> aldaera:	bait- aurritzka nafarreraz eta Ipar EHn. Gipuzkoan Hondarribian, Irunen eta Oiartzunen. Erreenteria eta Lezo isoglosaren beste aldean; Arano eta Goizueta nafarrak ere bai.
7) Lexikoa: <i>antzi, bajera, anguxatu, atzman, bufara?, ingriya?, malkarrot, maxina, xai.</i>	

b) Erdialdekoarekin (eta mendebalekoarekin) lotura ez da horren nabarmena:

BILAKABIDEA	HEDADURA
1) <i>-ntzak</i> destinatiboaren aldaera	Azkuek XX. mende hasieran Bermioko eta Mundakako bizkaieraz jaso zuen.
2) NOR-NORI saileko berezko adizkien galera	Oiartzunen eta Lezoko ekialdeko baserrietan, gutxienez.
3) Lexikoa: <i>guzti, irago, txarki.</i>	

c) Portuko bereizgarriak ere aipatzeko modukoak dira:

- (1) Sinkretismoa eta analogia adizki iragankorretan.
- (2) Aditz laguntzailearen iraganeko *(t)zj > (t)xi-*.
- (3) *ttire* ‘dira’ analogikoa.
- (4) *jartú* pleonastikoa.
- (5) Aldaera lexiko gehienak berrikuntzak dira: *bajore, begiraka & kantarika gañikera, irubasi, mixi, noskargero, obetijo, omen* ‘hemen’, *urayek* ‘haiiek’, *txalfo*. Eta beste hizkeretan egun entzuten ez diren aldaera zaharragoak: *betiro, oriyek*.
- (6) Item lexiko gehiago aipa daiteke: *aisa!, aketto, blagan, erreka, fiyako, ingriya, legera & legeko, maxina, onian...* Baino itsas lexikoan bereziki, Hondarribikoak bakarrik ala itsasaldeko beste portuetakoak ere diren zehaztea ez da batere erraza: *alabanda, amuitz, baxo, marlaxka, partamutua, lapa tokatu, brankara bota* Hondarribian bederik ohikoak dira. Beste hauek, ordea, jakina da itsasaldean ezagunak direla: *arrosel, atxamarta, baltz egin, baxamara, bixkurri, eskalaproi, eskifaia, kroka, lanbasa, malote, motxokara, puñitu, surbesta, txotxo...*

d) Bestelako loturak ere ageri dira:

- (1) NOR-NORI-NORK adizkiak NOR-NORK sailean: nafarrera gehienean (baina ez Bortzirietan, Sunbillan, Bertizaranan, Mallerrekan, Basaburu Tzikian eta Araitzan). Hego EHn arrunktak gazteriaren jardunean, batez ere. Pasaian ere jasoak.
- (2) Lexikoan: *niri* ez da erdialdekoa.

6. ERANSKINA: ITSAS HIZTEGIA ETA TESTUAK

HILARIO LAZKANOTEGI: ITSAS LEXIKOA³

1. ITSASOA ALORRA:

1. **itzáso; itzáswa:** el mar
2. **itzáso sabála:** alta mar
3. **ur aundíya; ondúa:** profundidad
4. **itzáso eyér:** mar en calma
5. **kálma suríya:** mar en calma total
6. **kálma:** mar tras un viento
7. **itzáso aundíya:** hace mar
8. **itzáso jenerála:** mar gruesa
9. **itzáso sakárra:** marejada
10. **itzáso gólpja:** golpe de mar
11. **resáka; tiráldiyak :** resaca
12. **remolínwa:** remolino
13. **korréntja:** corriente marina
14. **úr suríya:** contracorriente de la orilla de un río
15. **úr karrúsa:** menditik heldu den ur zikina
16. **maría góra:** marea alta, ascendente
17. **plemeára:** pleamar
18. **maría béra; sujénta :** marea baja, descendente
19. **bajamára & baxamára :** bajamar
20. **maré bizíyak :** marea viva
21. **maré illak:** marea muerta
22. **olátwa :** ola
23. **amwítz :** ola de la barra
24. **tírliya:** olatu-mota
25. **apár :** espuma
26. **bildótxa & olátwa kráskjan:** cabrilleo (olitas de espuma que se forman cuando el mar empieza a alborotarse)
27. **olásta & oláxta:** ola que rompe justamente en la cresta
28. **trapalláda:** marejada, olas revueltas, trapisonda
29. **eskalatóya:** olas pequeñas que juegan en la playa

³ Har bedi hitzen bilduma hau erakusgarri soil modura. Zehatz aritzekotan kontuan hartu beharrekoak dira bibliografian aipatutako hainbat lan. Hitzak artikuluz hornituta idatzi ditut. Zientzi izenak nik egin dudan baino polikiago egiaztago beharko lirateke, zalantzarik gabe.

30. **erriáldiya:** seno (descanso entre 2 olas)
31. **auñáswa & aúña:** itsasoa urrutira lehertu eta ikusten dena.
32. **sipristíña:** roción (salpicadura copiosa y violenta de agua del mar, producida por el choque de las olas contra un obstáculo cualquiera)
33. **mugíra:** Kurrillaon edo Erretetan, bi tunbien azpiko plataforman olartua lehertzen ikusten denean esaten da.
34. **arói; aróya:** tiempo para hacerse a la mar; ocasión, temporo

2. ITSASOKO ANIMALIAK ALORRA

1. **arráya:** pez
2. **arrái suríya:** pescado blanco
3. **arrái gorríya & arrái azúla:** pescado azul
4. **arrái másak, motzokárak, arrái gorríya, arrái bánka, arrái mórdwa:** banco de pescado
5. **sardára, balbalára:** atuna denean.
6. **arrái lorí:** banco denso
7. **arrái mé, arráya mía:** banco muy poco denso
8. **píllak:** bandada superficial de pescado, antxoaz ari garela
9. **súa, arrái-súa, ardória:** brillo que, en la noche, produce un banco de pescado
10. **réus, reúxa:** morralla
11. **arrába bóta:** frezar
12. **arrábak:** huevas;
13. **apásta:** huevas prensadas
14. **izkúrriya:** plancton
15. **sakátza:** branquias;
16. **pixárra:** barbilla
17. **trinpólla:** tripas, estómago del pez
18. **takéta:** aleta dorsal
19. **bustán pála:** aleta caudal
20. **bustána; isátza:** raíz de la cola (estrechez posterior en el cuerpo, donde nace)
21. **isúrra, ixúrrak;**
22. **arántziya:** espinas
23. **eskáta:** escamas
24. **larrúa:** piel áspera de ciertos peces
25. **txardíña:** sardina
26. **txardín sárra:** arenque
27. **koláka:** sábalo (*Alosa*)
28. **koláka:** alacha (*Sardinella aurita, Clupea aurita*)
29. **antxúa:** anchoa

30. **isukíya:** salmón
31. **amorráya & ámorráya:** trucha marisca (*Salmon trutta trutta*)
32. **orrátza:** aguja
33. **korrokóya:** mújol (*Mugil cephalus*)
34. **dabéta:** galupe (*Mugil auratus*)
35. **antxiñába:** chucleto (*Atherina hepsetus*)
36. **erregíña:** palometa roja (*Beryx decadactylus*)
37. **belberíña:** salmonete de roca (*Mullus surmuletus*) & salmonete de fango (*Mullus barbatus*)
38. **mérwa:** cherma (*Polyprion americanum*) & mero (*Serranus guaza*)
39. **lupíya:** lubina
40. **aukérra & abukérra:** verrugato (*Umbrina cirrhosa*)
41. **palomíta:** japuta (*Brama raji*)
42. **dúrdwa:** maragota (*Labrus bergylta*)
43. **kíkuuarráya :** durduaren moduko arraina.
44. **amuyéta:** bodión (*Crenilabrus pavo*)
45. **donsélla:** doncella (*Corys julis*)
46. **lúya :** antzekoa
47. **muxáta:** sargo (*Diplodus sargus*)
48. **muxárra:** mojarra (*Diplodus vulgaris*)
49. **xaltamíkwa:** muxarraren antzekoa
50. **kakajálja:** muxarraren antzekoa
51. **sarakúntza & sakúntza:** raspallón (*Diplodus annularis*) ala 92 oblada (*Oblada melanura*)?
52. **sapatáriya:** chopá (*Spondyliosoma cantharus*)
53. **doráda:** dorada (*Sparus auratus*)
54. **muturmótza ?:** dentón (*Dentex dentex*)? pargo (*Pagrus pagrus*)?
55. **arrosséla:** besugo (*Pagellus centrodontus*)
56. **pántxwa:** pachán (*Pagellus bogaraveo*)
57. **alirótja:** aligote (*Pagellus acarne*)
58. **érla:** herrera (*Pagellus mormyrus*) cf. *Lithognathus mormyrus*
59. **lamóta & lanbóta:** breca (*Pagellus erythrinus*)
60. **sábiya:** salema (*Sarpa salpa*)
61. **berdéla:** caballa (*Scomber scombrus*)
62. **makaéla:** estornino (*Pneumatophorus japonicus colias*) cf. *Scomber (pneumatophorus) japonicus*
63. **e(g)álmotza:** atún (*Thunnus thynnus*)
64. **mónja:** antzekoa
65. **egáluxía:** albacora (*Thunnus alalunga*); atún blanco
66. **mónwa:** hegaluzearen tipokoa, ttikiagoa, 2-3 kilokoa.

67. **matráll béltxa:** hegal motzak ditu, ttikiagoa da
68. **koreánwa:** listado (*Euthynnus pelamys*)
69. **txitxárrwa:** jurel
70. **txírlwa :** txitxarro ttikia, beitarako erabiltzen dena
71. **sapurítza:** vieja (*Gobius cobitis*) cf. babosa edo putita (*Blennius pholis*).
72. **kamixóya :** tipo berekoa
73. **gurlíña:** borracho (*Trigloporus lastoviza*)
74. **neskásarra:** bejel (*Trigla lucerna*)
75. **perlóya:** perlón (*Trigla gurnardus*)
76. **krába:** cabracho (*Scorpaena scrofa*)
77. **sakarállwa:** rascacio (*Scorpaena porcus*) eta escórpora (*Scorpaena notata*)
78. **xa(n) martíñ arráya:** pez de S. Pedro
79. **rodabállwa & (e)rrebállwa:** rodaballo (*Scophthalmus maximus*)
80. **ollárra:** peluda (*Arnoglossus laterna*) cf. limanda
81. **xabálwa; platúxa:** platija (*Platichthys flesus*) [kontuz zientzi izenarekin]; cf. solla. Xabalua ttikiagoa da, errioan atzeman ohi da. Platuxa handiagoa da eta itsasokoa da.
82. **lengwádwa:** lenguado
83. **abadéjwa:** abadejo
84. **bakállwa & bakallába:** bacalao
85. **fogonérwa:** bakailoaren tartean ibiltzen zena, beste klasea, hala ere.
86. **fanéka:** faneca (*Gadus lascus*) ; cf. merlán
87. **le(g)átza** (bi kilotik goiti); **medjána** (kiloa eta bi kilo bitarte); **peska(d)illa** (kilora bitarte);
karjóka & karjokilla (ttikiagoa): merluza;
88. **kallapúta & lórtxa :** brótola (*Phycis*)
89. **salmidóya:** araña (*Trachinus*) cf. *Trachinus draco*
90. **xakátja:** (*Trachinus vipera*) hondarpean sartzen da, kaietan, aurrekoaren erdia da tamainaz.
91. **gaixápwa & gaisápwa:** rape (*Lophius piscatorius*)
92. **pés espáda:** pez espada
93. **espalárta & espelárta; arrái gaistúa:** orca
94. **tálwa:** pez luna (*Mola mola*, *Orthagoriscus m.*)
95. **sáblja:** pez cinto (*Lepidotropus canatus*)
96. **lantzóya:** lanzón (*Ammodytes*)
97. **angíra:** anguila (*Anguilla anguilla*) & congrio (*Conger conger*);
98. **girlíya:** mucosidad de la anguila;
99. **angúla:** angula
100. **moréna:** morena (*Muraena helena*)
101. **marrájwa:** marrajo (*Isurus*)
102. **kayéla:** cañabota (*Hexanchus griseus*)

103. **poláywa & koláywa:** musola (*Mustelus mustelus*)
104. **tólla:** tintorera (*Prionace glauca*) & jaquetón (*Carcharodon carcharias*)
105. **katóarráya:** pintarroja (*Scyliorhinus canicula*)
106. **líxa:** lija (*Echmopterus spinax*; cf. cazón (*Galerhinus aleus*)
107. **tramána:** angelote (*Squatina squatina*)
108. **tenbladúra:** tembladera (*Torpedo*)
109. **poxtégwá:** raya (*Raia clavata*)
110. **bastánta:** chicho (*Myliobatis aquila*)
111. **lanpría:** lamprea (*Petromyzon marinus*)
112. **isúrdiya:** delfín (*Delphinus delphis*)
113. **moxkótja:** itsasoan motelagoa, kostaldean ibiltzen da. Galdu egin da.
114. **balléna:** ballena
115. **sería:** cachalote (*Physeter catodon, macrocephalus*)
116. **masópla:** marsopa
117. **pótzwa:** masoplaren modukoa, asnasea hartzen duena, kanpoan ibiltzen da, haragi gorrikoa.
118. **lóma:** hondoko arraina, bost bat mila kilokoa, neguan asko ekartzen zena garai batean, gibela laboratorioetara saltzen zen, mamia baserrietara. Pixkan-pixkan galdu zen.
119. **fóka:** lobo de mar (*Monachus monachus*)
120. **tortúga:** tortuga tonta (*Thalassochelys carretta*)
121. **txíbiya:** jibia (*Sepia officinalis*)
122. **txipiróya; be(g)í ttikíya; be(g)í aundíya:** calamar, chipirón (*Loligo vulgaris*). Bi moten arteko bereizketa: begi ttikiak garro ttikiak ditu; begi handiak garro handiak ditu, txipiroi larriagoa.
123. **póta:** pota (*Ommastrephes sagittatus*)
124. **tínta:** tinta del calamar y la sepia;
125. **gárrwa & botóya:** tentáculo del calamar y la sepia;
126. **púlpwa:** pulpo
127. **gárrwak:** ventosas del pulpo;
128. **lápa; lápa kixkúrra; lápa xabála:** lapa (*Patella coerulea*). Lapa kixkurra biribilxeagoa, jateko hobea, ttikiagoa; lapa xabala handiagoa da.
129. **karakóla:** cañailla
130. **málla:** bíbaro (*Murex brandaris*); cf. bígaro común; eta caracol de piña (*Cerithium vulgatum*)
131. **óstra:** ostra
132. **bjéira:** vieira
133. **múskillwa:** mejillón (*Mytilus*)
134. **(txírla) potórrwa:** berberecho (*Cardium edule*)
135. **alméja:** almeja fina (*Tapes decussatus*)
136. **txírla:** chirla (*Venus gallina*)

137. **txírla mírwa:** lohia den lekuan izaten da, azal zurikoa, jendeak ez du jaten.
138. **trétxwa:** navaja (*Solen vagina*)
139. **langostínwa:** langostino (*Penaeus kerathurus*)
140. **gánba:** gamba (*Parapenaeus longirostris*)
141. **ixkíra:** quisquilla (*Crangon crangon*)
142. **sigála:** cigala (*Nephrops norvegicus*)
143. **bogabántja & bixéra:** bogavante
144. **langósta:** langosta
145. **kamárrwa:** cangrejo de mar (*Carinus moenas* cf. *Carcinides maenas*)
146. **arkáis kamárrwa:** harri tartekoa, oso ona jateko, handixeagoa, hagin fuertekoa, mami askokoa.
147. **apáis kamárrwa:** arrokatan ibiltzen da, ttikia, arrantzakotz ibiltzen da, ez da jaten.
148. **txangúrrwa:** buey (*Cancer pagurus*)
149. **nékora:** nécora (*Portunus puber*)
150. **amiárma-kamárrwa:** centolla (*Maja esquinado*)
151. **autzíki:** morder (un cangrejo, etc.);
152. **agíñak:** pinzas (del cangrejo, etc.);
153. **lanpérra:** percebe (*Polyclipes cornucopiae*)
154. **isárra:** estrella de mar
155. **marmúka:** medusa
156. **agwamála:** marmuka kolorezkoa, urdin antzekoa.
157. **espónja:** esponja (*Euspongia*)
158. **brójwa:** mergo, cuervo marino (*Phalacrocorax carbo*). Izen zientifikoa hori da, ala *Sula bassana*? Itxura eta ohiturengatik azkeneko hau delakoan nago.
159. **ttiríttarráttia:** golondrina de mar (*Sterna sandvicensis*)
160. **marlákxa (& antxéta):** gaviota (*Larus ridibundus*)
161. **marlóya:** gaviota plateada (*Larus argentatus cachinnans*)
162. **marikóya:** pardela (*Sterna hirundo*)
163. **martína:** martín pescador (*Alcedo atthis hispida*)
164. **sa(n) martín txoríya:** moko luzea, koloretakoa, kanalekoia.
165. **polboríña:** errioan sartzen dena
166. **gabarrásia:**
167. **kurlíntxa:** kostan ibiltzen da, barrenen, birigarroaren tankerakoa.
168. **txoálla:** hegazti mordoska, pilota egina goitik behera egiten duena arraina azpian duelako.
169. **(itzásoko) belárra:** alga
170. **sabi-belárra:** sabiak jan ohi duen belarra, arrotakoa.
171. **líma:** lima

HILARIO LAZKANOTEGI: TESTUAK

1. ITSASOA

Itsasoan gidatzeko erreferentzia modura hartzetan dute kantilla: kantillatik kanpon, kantillan kontran, kantillan barréngoa aldétikan.

Ník nola (e)sango nuké, kantilla: biré bat, kamíwa, kamíwa zuzénjan ez, bañan ezkér-eskúbitan, úra korrítzeko zér(a) orí, nola izéna du, akantil..., akantarilla, bajáldia báidu ez, bajáldi yorí... fórm(a) órtan wan pentzátu bar dugulá, kamíyu orí itzásorik zabáljan zuzén-zuzénjan díjula bráza bát, bí, irú góra-béra..., pwes eún, berreún, irureún, lareún bráza góitik béra ya, zolúa...; eún brázatik béra erortzen dénjan, por ejemplo, ogéita amár, berro(g)éi, irurugéi, larogéi, laro(g)éitamár ya allátzen dénjan, ya eún bráza bwélta orí artzén dénjan, órtik asítzen dela, ra, zolúa, góitik béra, eúndamár, berreún, irureún, zénbat áurrero jwan, eta alabérako, segun azpíya nola den, leórreko mendíya bezála. Batalláben mutúrrjan jartú eta an tzaudén lekúan lláno ánkatan, miño irú páuso emán eta góitik béra zolúa ez, eta onárago etorri eta wándik aundíyagwa altúra, itzásuan berdín-berdíña.

Eta ura haunditu:

Zernái arrántzan ta: - Zer, ur ttikía (d)ek? Ta -Anbéstean bráza. - Ur aundíttu (eg)in txjú(k). Por ejemplo, o(g)éitamár brázetan bat geráztzen da o arráya arrapáztzen o(g)éitamár brázatan, ta gero ándikan órdubeté (e)ro korrijéntja déla ero aizíak bóta, kontxox, sondátu berríz ta o(g)éitamár bráza, berro(g)éi bráza: ur(a) aundíttu (eg)in tzjúk, bóta sjúk kánpora bóta sjúk korrijéntjak o aizíak o lo ke séa... úr(a) aundítzi orí.

Hondoa aipatzen duten:

Bai, ondúa, bai, bai, normál

Eskuarekin itsaso lanu adierazi eta itsaso bare ez du bertako erabileratzat jo:

Itzásua baré dénjan?

Hala esaten da...

Ez, emén Ondárrabíyan, ez, itzásorik eyér... Itzásorik barétxa orí... béstean pwértotan, emén itzásorik eyér.

Ura nola egoten da?

Platéra egónigo litz(ak)én bezála, itzásorik eyér, kálma, kálma. Kálma bat, sertikan kálmak posíble dula (i)zátja aizérrik góbe kálma, m(i)ñó al mismo tiempo itzásua izáztja azpíyan. Ta óla dénjan, itzásorik eyér dagónjan itzásu béra, mar de fondo, (i)tzásu béra, ya baré-baré dagó.

Eta kalma ere aipatzen da?

Kálma esáten delá normál aizía, aizía báiden ero éz... Itzásorik eyér baldin báda posíble delá lanpérnatara jwátja... Ta kálma, posíble dík itzásuan kálma (e)zátja miño arrókatan ezáztja amwítzak, (i)tzásu aundí, m(i)ñó kálma kánpwan, aizérrik ez.

Kalma zuria onartu egin du:

Kálma suríya bai, orí esáten delá, kálma suríya, eyér-eyér dagónjan, aizérrik eta ez itzásorik... kálma suríya

Zakarreria eta itzaso handia 'mar de fondo':

Kálma, aizíak jótzen du nonbáitikan, ipárra, báxokwa, mendebáala, arék (eg)ítten dula zakártuazí, zakarrériya góok orréri déitzen djogúla. Kálmatan bezála, aizíakin eré zakarrériya, olátu béra formátzen delá, bañan azpíya, itzásua, mar de fondo, orí baré, azpíya.

Béstean bat izáten delá, itzásua, itzásorik aundíya, mar de fondo, t(a) al mismo tiempo gero aizía ekárri ta órdun ya orí zakárra (i)záten dela fwérte

Erdarazkoa aipatu eta:

Itzásua txárra dénjan.

Aurrerago itsasoa izan:

Itzáswa baldin báda, itzásu béra, *mar picada* déitzen den orí baldin báda

Aipatu ez duenez, nik aipatu diot:

Báita, itzáso jenerála pwes, gúk omén déitzen dugúna amwitzak djénjan.

Eta amwitzak:

Amwitzak? Itzáswa (e)záten delá baré-baré, géro bést bat (i)záten delá itzáswa ekártzen dunjan, etorréra itzáswana, ta (e)mén kóstaldetan, léngo sárratik eldú déna, markazíywak ez? arroká(ta)tikan jótzen dúnjan itzáswak, itzásu orí zabáltzen delá bayía aldéra lértzen lértzen, orréi déitzen djogúla gúk amwitzak. Bést bat izángo delá por ejemplo itzáswak jó arrókatan eta arrókatatikan ogéi métro eztjénak zabáltzen itzáswa lértzen, bañon bést jenerál orí, emén bayían béisntzat, jobá, igwál jwango delá berreún, irureún métro zabáltzen lértzen itzáswa.

Batallauren kanpoko aldetik eta Lohian ur meheagoak eta itsasoak hor eremu batean aisa lehertzen duela. Erdarazko ‘mar gruesa’ galdetutakoan erabili du:

Mar gruesa ta arbolada, ník léno esán duténa, itzáso jenerála dénjan, Amwitzeko zér(a) oríyek, aundí yoyék

Marejada aipatu diot, eta bereziki sagail-en bila joan naiż, ez du ezaguna: itzáso zakárra erantzun du.

Azaldu eta neunik esan diot ‘resaca’. Berak tiraldiak aipatu ditu, erresakaren gora-beerak, baina azalpenean erabili du galdetutakoa:

Zuek esaten duzue?

Bai, (bi)ño gúk normál esáten dugú tiráldiyak, tiráldiyak, orí itzáswa dagónjan (i)sáten delá... Askótan, askótan ez, óla ondártzan be(g)íraka jartú o pwértotan bérstan káyatan bérstan, itzáso eyerra dénjan plemeáratan ezáten dulá parétan kóntra néurri bat, álik eta úra bajátzen así arte. Sin embargo, itzáso aundíya dénjan plemeára, markazíyo órtan (e)ro allátu ta itzáso aundíya baldin báda (eg)íngó dulá igwál markazíyo órtatikan métro erdí bat góra ta géro álako bátjan bést, bárriz eré métro erdí bat béra, góra-béra ibiltzen delá itzáswa, resáka, itzáso béra. Ta órdwan (eg)íttien dulá, pwes béko belárrak ta déna mwittuazí orrék, beré sasoyjan ya, setjémbre-o(k)tubren... o(r)í déna ezáten delá itzáswa baldin báda, itzásu béra, *mar picada* déitzen den orí baldin báda.

Korriente hitza aipatzen duten galdetu eta axola azpimarratu du:

Korréntja (a)skó, ba, ba, ba. Itzáswan, arrantzale ártjan korréntja, jo, garrántzizko gáuza delá jakítja núndik eldú den, núngeo aldétikan. Itzáswa dénjan sentido bérjan éztela (e)tortzen korréntja. Korréntja, por ejemplo, ní emén eta eméndik korréntja, lésteko korréntja, ta nerétikan mílla erdí bat o bí mílla, bést lekúan bést bat eta arék bést korrénte-kláse bat igwál dulá, m(i)ño korréntjak askó esán nai dulá arrántzakotz, bai(...). Ta betíro itzáswan korréntja betíro báidela, (m)i)ño betí (e)re éztela kláse bérjan, lekú bérjan... lekú bérjan paráje bérjan txipiróitan e, txipiróitan lekú bérjan gáur, korréntja e(g)úko korréntja, t(a) urréngo (eg)únjan lekú bérera jwán ta i(g)wál izángo delá ba oésteko, báxoko korréntja, osea, kanbjátu askó (eg)íttien da lekú bérjan eré.

Ur zuria:

Eudí askó (eg)íttien baldin bádu, góitik eldú den ur orí, úr zurí-zuríya déitzen djotelá, úr zuríya, t(a) orí, klaro, desenbokáztzen delá emén bökatan. orí zabáldu (eg)íttien delá itzáso aldéra, segun zénbat eudí egín dwén, alabérara géro zabáltzen delá itzáswan eré láu, bóst, séi mílla kánpora. Ta itzáswan nabarmén geldítzen delá, itxeko parétera beirátu pintátu zuríya ta beste... ba, ba, bai, típu órtan ge(r)átzen delá, býek pegátzen djénjan aldé bat kánpoko sérak kolóre bat, eta barréngwak bést kolóre bat, baréngwa betíro zuríya, ur zuríya déitzen diogúna.

Erresulla aipatu eta azaldu egin du:

Erresúlla, pwes, korréntjak emáki dwelá biré bat, eta birí órtatikan beré értzjan, korrénteri(k) pábe geldítzen delá trózo bat, errexúlla, osea, korréntja eldú delá direzíyo bátjan, emáki dulá beré biría, bañan nai den itzáswa izán arrén allátzen delá punto bátera... korréntjak baldin bádu berro(g)ei métro zabaléra,

berro(g)éitabat métrwan éztela korrénterik bátere, e, berro(g)éita bátera allázjan, errexúlla orréri déitzen djotéla. Úr surí yorí, itzáswan lekú bátjan, bayán, ekústen delá arráya góitik béra be(jr)átuta, métro erdí báteko o brása betéko sé(ra), úrpian, ekústen diréla arráyak, antxúa o lo que sea ez? Úr suríyori sartzén dénjan... déus ekústen eré, nola suríya geldítzen den kolórja béra... ur suríya, kárrusa, úr karrúsa.

Honekin lotutako beste hitza, sujetan. Nik aipatu eta:

Sujénta déitzen djotelá úra bétti jwáki dénjan, béra jwáki dénjan, bai, orí sujetanta. T(a) óla aipátzen d... sujetanta normálmente korrénte aundíya, indárra dulkako, korrijéntjak indárra dulkako.

Marea bizietan aipatzen da:

Maré bizíya d(j)énjan, orí, korrijéntjak indárra geyogo nóna dwén, sujetanta aipátzen delá. Ta maré illatan nóna eztún korréntjak óloko indárrrik izáten, éztela aipátzen sujetantikan, lo unico esáten déna, pwes úra bétti o maría bétti zják.

Baxamara galdetu eta onartu egin du:

Bajamára, baxamára, batzu(k) baxamára, béstjak bajamára, orí déna bérstan sartzén delá

Olatua, olasta:

Olátwa izáten dek itzaso zabáljan plásta-plásta aizíak arrótzen dun úra, olátwa. (...) Sin embargo, olátwa dénjan axáleko séra izáten dek, aizíak arrótzen dwén úr orí, olázt(a) orí. aizíak píxkat amór emán órduko, olást(a) orí géro geldítzen dek... itzáswa geldítzen dek baré-baré abiyotikan, gáñekwa délako.

Aurrerago olaxta aipatu, goian lehertzen direnak adierazi eta:

Góyan, góyan, bai, úr azáleko aizé-olátwak,

Amuitzak hirunaka etorri ohi dira, segidan; tarteau errialdia izaten da. Garai batean barra iragotzeako teknika:

Eta orrék ezáten dulá, amwitzak normalmente, irú itzaso etorrera, golpe. Lénogo (e)mén bárra txárra zagónjan, bárra txárra zagónjan e(g)óten giñelá, bísta zagónjan e, púntara begíra, íslara, ta án lértzen tzúnjan óla golpe aundíyak, e(g)ón, irú óla lértzen dutéla segídwán ta géro irú óyen ondúan-ondórjan izáten delá geldiáldi bat, t(a)urá, púnt(u) urá aprobetxátu bjár bárra ira(g)ótzeko, ur mía nóna (i)záten tzen bárran, púnt(u) urá arrapátu bjár bárra ira(g)ótzeko, ta artú bjár dénbor(a) orí, púntan lértu t(a) itzás(o) orí béra, irú itzás(o) oriyek alik eta bárrara allátu arte, an gu bárran kánpoko aldétik e(g)óten giñela, bérstan, m(i)ño úr aundíxogotik, ta bárra irágo arte, agwánta. Wántxet irú óyek bárran lértzen d(j)e órdwan máquina déna iréki ta barréne(r)a sartzeko forma alik eta beste... beste amwitzak etorreri baño lénago. Órtan e(g)óten tzéla jéndja, askó (eg)íttien tzélá deskwidátu, arrapátu. Usté gábjan ba, erriáldi... erriáldiya déitzen déla géro, ez, irú aundí irágo ta zéra, ta géro erriáldiya, ník (e)sán duténa, alik eta urréngó gólpja (e)tórrí arte, tárti órtan, erriáldi orréri déitzen djotéla, eta erriáldiyortan (eg)ín bjar tzéla aprobetxátu bárra ira(g)otzen. T(a) amwitzak orrétilk, itzaso jenerala dénjan.

Esaera aipatzen hasi eta ezaguna, esanahia ere ažaldu egin du:

Orí léngo séra dek, léngo esaéra bat dek: Úra bai ta urik ez, úra bázen ardúa erángoa, t(a) úrik ez déloko úra erán bjár. (...) Itzásotik eldúki, e, t(a) allátu yaiz bárr(a) órtañogo, línj(a) órtara. Úra bían swertátu, ondórik ez bárkwa ira(g)ótzeko. Úra bai azpíko aldían, (mi)ño bárkwa ira(g)ótzeko úrik ez, e. Úra balin básen, maría górago balin básen, itxér(a) allázjan, itxian ardúa erángoa. Ta úrik ezdéloko, bárkokoa úra berriz erán bjar, e, úra baldin básen ardúa erángoa, ta úrik eztéloko, úra erán bjar, bárkokoa úra erán bjar.

Olatua eta amuitza ez dira gauza bera, hortaz:

Amwitzak irú itzaso ekártzen ttulá berékin, irú segídwán.

Hori da klase bat...

Orí da klase bat, amwitzak. óyek izáten djelá béstetik ya nabarménagwak, itzásywak. Arrókara jótze(n) (d)uténjan golpe awndíyogwak eta amwitzak etortzen dénjan éitten delá tiráldiyakin, len esán duténan néurri bérjan dénjan, pleamárjan eré tiráldiyakin amwitzak dénjan eré ítten dula orrék geyena gottíttu.

Diferéntziya báidelá amwítzatik amwítzara, olátotik olátorra, klaro, miñó ya néurri bátetikan áurrera sartzén delá amwítza izén órtatikan, aundíya dénjan, itzásó jenerála dénjan. (...)

Orí (i)záten delá, olátu bérakin bátjan [atuna], or nola surf, surf nóla ibiltzen da oláto gáñjan, pwe(s), fórm(a) órtara atúna (e)re, klaro ur azáletik góra ez, (mi)ñó úra bérakin bátjan e, olátu béra... óla bárkotikan ekúxten delá arráya gorríyan gorríyan, an, tíriliyan berékin bátjan jwáten déla.

Tírlia, ta tírlia zer da?

Tíriliya? Olátwa (a)rtú berekin bátjan, ta olátu aréri segíttu, posible den bitártjan, álik eta olátwak lajátu lajátu arte nórberari, tíriliya.

Ez du trapasa ezaguna, trapallada bai, ordea:

Ónjan ítzak kanbjátu... trapalláda bai, trapasa órtik eldú delá orí (e)re, trápa, trapalláda.

Ta zer da trapallada?

Trapalláda? Itzáswa t(a) aizian olátwa bíyek nástwak, eltzia jártzen dénjan garbántzwak egósten, pla-pla nola zolú oy... pwes fórm(a) órtara trapalláda, mobimjéntwa, bértan aldé bátetikan béstetikan, óla trapalláda

Auña eta auñazua aipatu eta:

Auñázwa(k) pai. (Mi)ñó auñázwa, ya auñázwa dek bistaz ekústen dekéna: ...apárte samárrera itzáswa lértu baast! arráyak, orréri déitzen tzjok auñázwa, auñázwa. O atúna sálto o ballénak ero ... gólpjan ser(a) (eg)itten den, lértzen den, autzítzen dúnjan, aúña. óla biátu ta itzáswa azul-azúla ekústen d... bistan orizónete guztíyan, ta álako distántzi bátjan, i yitzén lekútik distántzi bátera, rraak, itzáswa óla lértzen dek, auñázwa, arráya. Ze arrái den etzákigu árik eta (e)kúxi arte miñó (eg)itten dék trast óla lértu itzáswa, auñázwa óri dek. (...)

T(a) orí láutik irútan egwáldi txárran etorréan (eg)itten dik arráyak. Arráya óla ekústen dénjan, arrái awndíya, zakár óyek sáltoka úretik gótti atétzen ta, se(g)úro bi egún miñó lénogo egwáldi txárra, generalmente.

Bagaz galdetu eta barra ulertu: Barra serrátwta; úr mía, popáidjan emán. *Barra nola pasatzen zen. Arrisku andiena arratsean.*

Olatu bat lehertzen denean, zuri-zuri gelditzen den horri nola deitzen zaion galdetu eta zalantzazko erantzuna:

Oláxta.

Aparra esan diodanean:

Apárra aipátzen déla lo unico arrókatan ekústen balin báda, apárra, ór apárra ekústen déna. O korrijente kantálatan, itzásoko... itzásó aundíya dénjan arrókara jún podériwan formátzen dek apárra. Bwéno, itzáswa amór emáten ála, apár orí (eg)itten duk píxkan-píxkan zabáldu (eg)itten duk kánpwan bárrena, ta formátzen dek frontéra bat izángo litz... línea bat, óla, korrijentja bérakin bátjan, apárra orréi déitzen..., órtik áurrera apárra, itzáswan eztük agértzen apárrik.

Bildotxa aipatu eta:

Bildótxa aipátzen dek (mi)ñó bildótxa aipátzen dek aizian etorréan, aizian etorréan, e. Kálma-kálma, t(a) ará aizian etorréra ta, olá(s)twa krásk kráskatan, bildótxak. Olátwa lértzen dénjan txurí yorí agértzen dek ez? Txuríya nóla izáten den, bildótxa orréi déitzen tzjok, aizian etorréra, ya gayéntzen aizia, olátwa kráskjan, orí re bai.

Oleajea hitza aipatzen ote den eta ezezkoa:

O itzásó aundíya o azpíya mwíttu, igwál itzas... itzásora ertén, itxásó eyér-eyérra e, aizérik ez, aizérik ez t(a) álako bátjan, xoló bátzwek: itzáswan etorréra, zoló bátzwek, zolúa esáten tzjok ez? llánwan párté olátwa, emén kóstan olátwa agértzen dek góitik béraku orí, t(a) itzáswan ere bai góitik béra, nai ez lértu izán arrén, e, bajáldi yorí, métro beté, lo que sea, zolú orí betíro raas, itzáswa béraren etorréra, orréi déitzen (d)jotéla.

Eskalapioa eta eskalatoia aipatu eta bigarrena eman du ontzat:

Eskalatoya izáten duk emén Pasáyan Asabástatan, askó (i)záten tzukén léno, bárran kóntran ere bai askotan (i)záten tzukén eskalatoya. Eskalatoya korrijéntjekin formátzen den olártwa.., korrijénti bérak formátzen dwén olátwa. orí erríwan, itzáswan atayérako úr orrék, korrijénti bérak (e)kártzen dwén ta géro itzásokwan kontrásti órtan eskalatoya, formátu (eg)ítten duk olátwak, oláto ttikiyak.. miño fórm-mobimjéntu orí, (es)kalatoya. Askótan ekúxko duk bárratik atéra motór ttikiyá ta raa... sálto ta sálto ta sálto bértan e táka táka, ta géro zabáldu ta gútxiyogo askóz, e, géro sáltu áyek ez... eskalatoya orí dek bértan formátzen den olástak.

Zipristina edo zipirtina aipatu eta lehengoa esan du. Esanabiaz:

Sipristíña, pwes leórrjan bezála, urá pixárra bótzen balin báda bátek béstjari. O bárkwán bértan mártxan yuá, aizé pizárra badék ta bárkwá aizí orrék altxátzen dwén olátu orí úr orí jótzen dúnjan bárkwá, jótzen dúnjan pwes barrénera sartzén den úr zipristíñ óyek, úr orí, zipristíña orí, orréri...

Erretetan mugimendua izaten da, bajak direlako:

Errétak, bai, bájak ttuk eta, arroka. (...) Arróka (e)záten dek, arróka gótti, bai. arén értzjan i(g)wál ezángó dek amabóst bat bráza (e)ro amár bráza (e)ro amábi bráza miño derrepénte géro txikítzen txikítzen i(g)wál láu-bost bráza bitárte ola gottíttuko (du)k arrók(a) orí. orrétk... ór itzáswa lértzen dek.

Eta hor mugira:

Mugira, pwes, itzáswa lértzen balin báda, o ezpaldin báda lértzen, diferéntziya orí dek. Lértzen balin báda, señal que mugira dúla itzásywak, ezpáda lértzen, pwes itzáso eyér. Góizjan begíra ta: eztuk oláto(ko)rik ekústen lértzen, itzáso eyér tzjok, m(i)ño egwárdiyán o jwáten yaiz berríz ere kávara begíraka jartú ta kóño, itzáswa lértzen duk, mugíra ba(d)ík itzásywak. án baldin bádu mugíra, bárran ere bai ta Amwitzeko íslan kóntran ere bai.

Marea erantzun du, eta nik aroia aipatu diot:

Aróya, maría, déna maría bai. Arói óna? Por ejemplo, maríak izáten ttik beré órdwak, séi órdu góra ta séi órdu béra, ez? Lanpéرنak arrapázko úra bían bjar dék, pwes arrapátu bar dek púntu orí úra bían dagónjan euní án izáteko arrókatan úra bían dagóla, maría, aróya, arói ónjan. Jwáten báya(i)z maría góra así dén dénbor(a) órtan, pwes arói txárrjan jwán yaiz.

2. ITSASOKO ANIMALIAK ETA ARRANTZA

Arrain motak:

Arrái gorríya... arágiya, arágiya béra, mamíya, mamíya béra, mamívana. Arrái zuríya, por ejemplo, peskadilla, medjána, le(g)átza, oríyek dénak déitzen... orí sendáeítik [?] (e)ro nóndík eldú da orí? orí arrantzálian ártjan eztük, arrantzáljantzat betíro arráya, betíro arráya izándu kétu duk. Géroztik nik eza(g)útu kétu djét arrái zuríya delá ta gaxó da(g)ónak arrái zuríya ján bar dúla ta. áu eztük arrái zuríya, ta áu arrái gorríya duk eta, ez, por ejemplo, ollárrak direlá ero lengwádwak direlá ta, órtoko ya jakín (eg)ín bar diré nórberak sé... lo único guré ártjan arrái zuríya pwes bai, le(g)átza ta arrái klásja, t(a) arrái gorríya pwes atúna ta, lantzóya ta, arrái azúlak óyek bérrez.

Gorriaren zergatia:

Arrái gorríya déitzen djogulá, nai antxúa txuríya izán arrén, arrái gorríya, píllota (b)at (eg)íñia formátzen dénjan béra. Ez kolörjangatikan e! Béra formátzen dénjan, por ejemplo, izúrdiyakin txardíñia o antxúa béra, o antxúa béra bakárrik ere bai, o azpítik arrái gaxtúa dwélako, o lo que sea, béra píllota (b)at (eg)íñia formátzen délako. Bárkwán i(g)wál jwáki ta úra, úr azáljan, urdíñ-urdíñia jwáki t(a)álako bátjan, rak, bésté kolóre bat, arráyana, gorrí ántzera dwéna, arrái gorríá orréri déitzen delá, eza(g)útu (eg)ín bjar órtakotz.

Hitz hau, normalean antxoarekin, txardinarekin erabiltzen da:

Antxúa bai, beñtxat. Atúna (e)re gorríyan gorríyan esáten delá, déitzen déna, gorríyan gorríya. orí (i)záten delá, olátu bérakin bátjan, or nola surf, surf nóla ibiltzen da oláto gáñjan, pwe(s), fórm(a) órtara atúna (e)re, klaro ur azáletik góra ez, (mi)ño úra bérakin bátjan e, olátu béra... óla bárkotikan ekúxten delá arráya gorríyan, an, tírliyan berékin bátjan jwáten déla.

Arrai banka aipatu eta erdarazkotzat eman du nahiz eta elkarrizketan normal erabili duen:

Arrái bánka, mása, arrái mása, jótzen dénjan... Bánka, arrái bánka delá erdéraz mas bien, orí askó dénjan, askó da(g)ónjan. I(g)wál jwáki jwáki déus... álako bátjan derrepente rast arrái mórdwa jó, arrái bánka ta..

Mordoa ere bai...

Mórdwa (e)re bai. Mórdwa mas bien esáten déla góiko arráyari, atúnari ta, ba, arrái mórdwa, bístara, ekústen al mismo tiempo, sardárek ta gáuz óyek dénak.

Zer?

Sardára.

Zer da sardara?

Sardára, pwes arráya sáltoka asítzen dénjan, fjesta (d)uténjan, úran góitik bárrana, góitik sálto, úratik kánpora atéra, góitik béra, sardára bai. Ta sardára orí izúrdiyak ere bai, sardára. Léno, wan ez, wan ya isúrdiyakin éztela, arrantzáljak éztula lánik (eg)ítten éra béra esáteko. Gu(r)é gazté dénboran bai. Wan nola aparátwak eta dirén, aparát(o) óyen bitártez (eg)ítten delá arráya jó ta léno ibíllu bar tzelá izúrdiyán átzetik, izúrdiyak nórak júten tzjen bárkwak arén átzetik ségi, t(a) izúrdiyak, moménto moméntora ez ttuk játen ibílko, miñu éudek, kómeni zjoténjan ta baldin bázuten arráya áurrjan, asítzen tzukén derrepente déna emána, sáltoka, mártxa bátjan, línja bátjan artúta, arróntja(n), (mi)ño sálto, motórra déna iréki ta ezíñ arrapátu izúrdiyakeri, ba bai. Ta izúrdiya duk arrái bat osó abilla, askó korritzen duna. T(a) orí (eg)itten duk arráya jótzen dúnjan bérak, bétik sartú, ta bétik asítzen dek béra lánen arráya, antxúa, txardíña góra... ekártzen, ta góra (e)kártzen dúnjan, sárda, sardára déitzen tzjoték. T(a) atúna (e)re, ola sáltoka asítzen dénjan, t(a) atúna(k) bérak ere até(ra)tzen dik antxúa, antxó-sasóyjan, sardára, sardára déitzen tzjo... sér(a) orréri, arrántza kláse orréri.

Aipatu diot eta onartu du arrai bailara. Atunari dagokio balbalára:

Atúnakin ere balbalára ba(d)uk déitzen déna.

Zein?

Balbalára, bai. Balbalára izáten dek, bjar dik kálma-kálma aizérik gabe, e, déna uéra bat. Ta ik (e)sango duk: ta uéra zer da? Uéra izáten dek, eltzé báteri úra dénjan bó(ta) yok olíwa ta nóla geldítzen da zuríya, típu órtara itzásua déna zurí-zurí-zurí, uéra. or até(ra)tzen dok erémo bátjan, eltzian úra jartú ta irákitten asítzen dénjan pul-pul-pul... orréla, itzáswan fórm(a) órtara, pul-pul-pul-pul-pul, orí duk balbalára, atúnak (eg)ítten dik orí, atúnak bai, bizkárrakin ta séra, burúakin ta bérak altxatzen dwen úr, mobimjénto orí. Ur aundíya ez, e, ur ttikíya... orí eza(g)útzeko bjár dik esperjéntidun jéndja, eztik erozéñek eza(g)útzen balbalára. Ta léno esán duténa zéra (e)re ez, arrái gorríyan gorriyan atúna (e)re. orí (e)re eza(g)útu (eg)in bar dik, itzásua bai olátwa miñu olátwa bérakin arráya nola jwáten den ta.

Agertu ez denez, arraia lodí egon aipatu diot:

Bai, bai, orí erozéñ arrái klásetan, erozéñetan, bai, arrái mé (e)ro arrái lorí. I(g)wál etxáda bat (eg)ín eta kendóko ttjok láu (e)ro bost o amár arrúa arráya. Eta bést... pixkát áraxo jwán ta etxára béra (eg)ín ta i(g)wál arrapátko duk láu aldíz geyogo, depende. Atúnakin ere i(g)wál-i(g)wál aparátwak markátu ta arrái gútxi markátsen dik apa..., órdwan ya jakítten dek aparátwan alabérara, lorí dagón o mé dagón, miñu arráya izáten duk bánnak, bánka (a)rráyak, gútxi geyogo, depende.

Azalean doan arrainaz galdetu eta atzemateko moduarekin lotu du. Gaur egun aparatuuen bidez egiten dela, baina garai batean bestela egiten zuten: antxoa eta txardina izurdiaren laguntzarekin sardatan edo pilatan edo ziztaka. Baita beita egiteko botearekin arraba botata. Gaur egun argiarekin erakartzan dute beita egiteko arraia:

